

hh
hik hasi

150

4 EURO • 2010EKO UZTAILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



**XI. Hik Hasi Udako Topaketa
Pedagogikoak**

11 IPUIN
+
DVD-ROM
BIKOITZA



GIPUZKOAKO HISTORIA

IPUINEN BIDEZ




aurkibidea



6
gaia

ADIERAZPEN ARTISTIKOA HEZKUNTZAN

Eskola sormenerako lekua ere bada, eta horregatik, mota guztietako adierazpen artistikoei daukate lekua bertan. Izan ere, dantzak, antzerkiak, musikak eta plastikak ere hainbat gaitasun eta konpetentzia lantzeko aukera eskaintzen dute.



14
elkarrizketa

ALVARO BEÑARAN

UNEDek Bergaran duen Luzaro psikomotrizitate eskolako kidea da Alvaro Beñaran irakaslea eta pedagogo. Bitan banatzen dute taldea; hezkuntzaz arduratzen dira batzuk, eta laguntzaz, aldiz, besteak.

5 editoriala

6 gaia

ADIERAZPEN ARTISTIKOA HEZKUNTZAN

12 elkarrizketa

ALVARO BEÑARAN

22 ekarpenak

22 Irakaskuntza 2.0. Lorea Fernandez eta Itsaso Izagirre

24 Matematika tailerra. Karlos Garaialde

26 Ahotsaren erabilera egokia. Jaione Txapartegi

28 Osasun mentala. Patxi Izagirre

30 Web 2.0 eta Google aplikazioak. Maite Goñi

32 galdeidazue

Nola gainditu jendaurrean hitz egiteko dugun beharra?
Ana Elorza

35 laburpenak

36 Coaching **37** Haurrentzako masajea **38** Orkestra
musikaterapeutkoak **40** Adimen emozionala

41 Jolastu eta pentsatu HHn **42** Buru-mapak

43 Yoga irakasleentzat **44** Bideoa **45** Ipuinak

46 atzeko atetik

Gotzon Barandiaran

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Olatz Lasagabaster. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló eta Ainhoa Azpiroz. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Kepa Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: XI.Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoak. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2010-VI-16). Kopurua: 5.000 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Harpidetza orria



hik hasi_k
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaituz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararutzen ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala uztaila

Jendartea hezkuntzaz mintzo da!



***Jendarteak adierazi du
hezkuntzan egindako bideari
eusteko prest dagoela.
Etengabe hobetuz, Euskal
Herriak behar duen
hezkuntzaren alde!***

Beste ikasturte baten amaierara heldu gara. Eta ikasturte amaiera, zerbait izatekotan, ebaluazioa egiteko sasoia da.

Horretan arituko zineten, ziur, azken hilabeteko egun gehienetan: ebaluatu ikasleak, ebaluatu plangintzak, ebaluatu prozesuak eta abar. Ebaluatu eta nota ipini, noski.

Azken hamarkadetan garatzen ari garen hezkuntza-bidean bildutako esperientziak bultzatuta, "Euskal Herriak behar duen hezkuntzaren alde" agiria zabaldu zuten lagunek deituta nota ipini zion euskal jendarteak Euskal Herrian hiru administrazio publikoetan hezkuntza politikaren ardura duten gobernuei eta erakundeei.

Argi geratu da ikasturte honetan Nafarroan, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan hezkuntza gainean hartu dituzten erabakiak, eta abian ipini dituzten planek, ez diotela jendartearen gehiengoaren nahiriari eta

interesari erantzun.

Besteak beste euskararen presentzia eta ezagutzari buruzko neurriek, euskararen ofizialtasunaren ukapenak, Euskal Herria ulertzeko modu murriztaileak, testu liburuak zentsuratzeko nahiak, irakasleen gabezia edota biktimen auzia bideratzeko bultzatu nahi dituzten politikak era larrian itxuraldatzen dituzte urte askotan gure hezkuntza komunitate zabalean landutako bideak eta adostasunak.

Hezkuntza arduradunen aurtengo jarduna prozedura aldetik inposatzailea izan da. Eduki aldetik, euskararen garapenari eragin nahi izan dio. Eta jarrera aldetik, berriz, ez ditu kontuan izan ez gainerako eragileek ezta irizpide psiko-pedagogikoen eta soziolinguistikoen argi erakutsi dutena.

Hezkuntza arduradunek ez dute gainditu, beraz, ikasturtea; ez prozedura aldetik, ez eduki aldetik, ezta, batik bat, jarrera aldetik ere.

Eskatutakoa gainditu ez duten ikasleen eta familien moduan, hezkuntza arduradun horiei dagokie orain egindakoaren gainean gogoeta egin eta neurri zuzentzaileak egokitztea.

Herri honek hezkuntza arloan egiteke duen bidea luzea da oraindik. Garaiz daude, jendarteak eskatzen dienaren gainean hausnartzeko, irekitasunari heldu eta adostasunak etengabe bilatzeko ahaleginean has-teko.

Ikasleek, gurasoek eta hezkuntza komunitatea osatzen duten gaineko lagunek hezitzaileek egunotan ipini dituzten notak ongi hartu dituzte gogoan. Beharko! Administrazio publikoetako Hezkuntza politikako arduradunei dagokie, orain, Donostia-kaleetan jendarteak ipini dien nota ongi gogoan hartzea. Jendarteak, izan ere, ozen esan baitio Euskal Herriak behar duen hezkuntzaren alde dagoela!

GAIA

Adierazpen artistikoa *hezkuntzan*





Matematika, ingelesa, gizarte zientziak, euskara, natur zientziak... Eskola hori baina askoz gehiago da. Eskola sormenerako lekua ere bada, eta horregatik, mota guztietako adierazpen artistikoez daukate lekua bertan. Izan ere, dantzak, antzerkiak, musikak eta plastikak ere hainbat gaitasun eta kompetentzia lantzeko aukera eskaintzen dute.

Plastikako ordu bat, musikarako beste bat eta gorputz heziketa bai, eskaintzen dira. Baina jorrazten al da benetan adierazpen artistikoa hezkuntzan? Nola egin dezakegu? Zer gehiago egin daiteke? Besteak beste, adierazpen artistikoa lantzeko hainbat proposamen ekarri ditugu aurtengo HIK HASI Udako Topaketetara.

G

Adierazpen artistikoa

Gizakiak, gizaki denetik, harreman estua izan du artearekin. Azken batean ikusten, sentitzen, pentsatzen... duena adierazteko eta komunikatzeko balio izan dio mendeetan zehar.

Arkitekturak, musikak, dantzak, eskulturak, pinturak eta antzerkiak lengoia unibertsala darabilte eskuartean. Egungo bizimodua nolakoa den jakiteko tresna paregabea dira, eta iraganeko gizartea ere erakusten dute.

Artistek, filosofoek, hezitzaileek, psikologoek, soziologoek... askotariko azalpenak eman dituzte artearen inguruan. Nork bere ikuspegitik azaldu izan du zer den artea, eta askotariko iritzia ipini dituzte mahai gainean. Besteak beste, energia deskargatzeko bidez hartua izan da; plazera ematen duen ekintza gisa; bizitzari ihes egiteko modutzat; ezarrita dagoena zalantzan jartzeko tresnatzat; ikaskuntza emozionala lortzeko aukera gisa; eta errealitateko elementu kontrajarriak bateratzeko baliabide bezala definitu dute zenbaitek. Kasu honetan ere: zenbat buru, hainbat aburu.

César Lorenzano filosofia katedradunak *La estructura psicosocial del arte* liburuan honela azaltzen du bere lana egiten duenean artistaren baitan gertatzen dena: "Bere burua ezagutzen du, jokoaren plazera berreskuratzen du, unibertso propioa eta itxia eraikitzen du, neurtuta edukitako emozioak azalratzea eta kontrolatzea lortzen du, eta objektu berri bat sortzen du".

Horrela, arteak, helduentzako gauza dirudi. Baina ez da hala. Haurrek ere egiten dituzte lan artistikoak. Baina bal dute horretarako tarterik egungo hezkuntza sisteman?

Gaur egun, oinarritzko hezkuntzan alboratu samar dago arte heziketa; beste irakasgaiek dute lehentasuna, eta ondoren, denbora geratzen baldin bada egiten zaie lekua horrelako ekintzei. Eta oro har, irakasleak ez daude horiek

eskaintzeko behar bezala prestatuta. Margolaritza, dantza, musika, antzerkia... ikasle gutxi batzuei mugatuta geratzen dira, baldin eta eskolaz kanpoko ekintzetan edo tailerretan izena emanda badaude.

Zer eskaintzen dio arteak haurraren garapenari?

Jarduera artistikoez, hots, musikak, pinturak, dantzak eta antzerkiak haurraren *garapen psikomotorea* estimulatzen dute. Bereziki psikomotritzitate fina eta astuna lantzen dira, eta bide batez baita gorputzaren kontrola ere.

Bestalde, jarduerak artistikoez *garapen kognitiboan* dute eragina. Besteak beste, arreta, kontzentrazioa, irudimena, memoria, behaketa, autokonfiantza, borondatea... lantzen direlako.

Era berean, haurraren *garapen sozio-emozionalari* ere mesede egiten dio arte heziketak. Izan ere, haurrak bere burua onartu behar du, bere ahalmen eta muga guztiekin. Onarpen horrek lotura izango du haurrak bere buruaz duen ikuspegiarekin, eta horrek zuzenean eragingo du bere jokabidean; orain eta etorkizunean.

Baina ez hori bakarrik, jarduerak artistikoen bidez, haurraren zentzumenak landu eta *garapen pertzeptibo* ere sustatzen da. Espazioa, formak, koloreak, ehundurak, soinuak, sentipenak eta esperientzia bisualak adierazpenerako estimulu anitzak dira.

Arte hezkuntzak haurrari egiten dizkion ekarpen guztien artean, baina, bada bereziki garrantzitsua den bat: *sormena*. Malgutasuna, originaltasuna, etorria, independentzia, kritika, autokritika... landu ahal izango ditu. Zerbait sortzean, analisi gaitasuna, aukeratzeko gaitasuna, loturak egiteko gaitasuna eta sintesi gaitasuna, jartzen dira martxan, besteak beste. Prozesu horretan haurraren esperientziek eta ezagutzek hartzen dute parte.

Adierazpen artistikoa hezkuntzan

Gorputz adierazpena



Euskal dantzak

Euskal dantzek, eskola orduz kanpo soilik ez, eskola orduetan ere dagoien lekua izatea gustatuko litzaioke Goizane Arregiri, baina bitartean, eskola orduz kanpoko jardueretan dantza eskolak ematen aritzen da Gipuzkoan, herriz herri. Dantza erabilgarriak erakusten saiatzen da, ondoren plazetan dantzatzeko modukoak direnak: “Askotan, gero irteerarik ez duten dantzak erakustera jotzen dugu eta eskoletan, normalean, ikasturte bukaera aldera erakustaldia egiteko moduko zerbait eskatzen dute. Oroimenaren kutxan geratzen diren lau dantza egiten ditugu eta txikitan euskal dantzak egiten genituela esaten dugu helduak garenean, baina askoz gehiago ez. Dantza, ondoren erabiltzeko erakutsi nahiko nuke”.

Balioak eta gorputza lantzeko

Taldean egiten diren dantzek haurrekin, besteak beste, talde lanaren garrantzia azpimarratzeko balio dute: “Dantzak elkarlana du oinarri taldean egiten denean, eta ez badiozu aldame-nekoari laguntzen edo nahasten denean nabarmen uzten baduzu ez duzu

ezerlortzen”, dio Arregik. Gainera, euskal dantza gehienak, bakarkakoak izanda ere, taldean egiteko dantzak dirrela azaldu du: “Normalean dantza sozialak dira eta taldean egitekoak. Beti dantzatu behar dugu jendearekin, ez jendearentzat, soilik”.

Baina, balioak lantzeaz gain, dantzek mugimendua, psikomotrizitatea eta espazioaren erabilera lantzeko ere balio dute.

Baina gauza askotarako balio arren, eskolako orduetan ez du espazio handirik eta garrantzia eman beharko litzaiokeela uste du Arregik. Dena den, bada dantza ikastorduetan sartzeko esperientziaren bat, azaldu digunez: “Zarautzen bada esperientzia bat. Lehen Hezkuntzako 4. mailan euskal dantzak erakusten dira eta adin horretako neska mutil guztiengana iristen da. Hasieran, ikastetxe guztietara zuzendu zen eta funtsean, ideia, Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailako ikasle guztiek (neskek zein mutilak) euskal dantzen oinarria jasotzea zen. Denborarekin, Lehen Hezkuntzako 4. mailara murriztu zen eta, gaur egun, eskola batzuek kendu egin dute. Mantendu duten horietan, astean behin, ordubetez, irakaslea ikastetxera joaten da ikasleei dantza erakustera”.

Dantza eskolan egotearen garrantzia azpimarratu du Arregik: “Dantza taldean ardura gisa ikusten da eta jende asko kanpoan gelditzen da. Elkarlana edota psikomotrizitatea lantzeaz gain, lotsak alde batera uzteko, adibidez, balio dezake dantzak. Niri eskolan erakustea gustatuko litzaidake, baina zaila da; curriculum berriak ez du horrelako-

rik jasotzen eta zer titulazio beharko litzateke, adibidez, horretarako? Bestalde, gozatzeko soilik, dantza egitea beharrezkoa dela iruditzen zait. Politia izango litzateke, txikitatik, denok dantza egin dezakegula barneratzea”.



Europako dantzak

Patxi Monterok Euskal Herriko dantza tradizionalak ezagutzeaz gain, Europako dantza tradizionalak ere ezagutzen ditu. Haren hitzetan Europako folkloean badira dantza ugari haur eta gazteentzako aproposak direnak. Horiek ezagutzea helburu pedagogi interesgarriak lantzeko bitarteko erakargarria izan daitekeela dio.

Azaletik begiratuta, dantza den aldetik, Europako dantzak jarduera ludikoa da, arina, normalean dibertigarria. “Baina irakasleak badaki, isilean, hitzen beharrik gabe, munduko dantzen bitartez zer lantzen ari den. Badaki, jolasaren atzean amarrua gordetzen dutela.

Badaki korroan (biribilean) edo sokan helduta dantza egite hutsak parte hartze eta batasun sentimentua sustatzen duela. Badaki integratzaileak dire-



la: norbere urratsetan, eta denak urrats bertsuetan, taldea bat eginik mugitzen dela. Hots, taldeak egiten duela dantza. Badaki, horregatik, batasuna, parte hartzea eta talde izpiritua sustatzen ari dela”.

Beste kulturen errespetua

Dantza, gainera, Monteroren hitzetan, bitarteko egokia da haurra zentratzen ikasten joan dadin. Era berean, dantza zirkular erraz eta pausatuek baretasuna dakartela dio, eta baretasuna erakutsiko diotela haurrari, hots, harmonia.

Baina batez ere, Monteroren arabera irakasleak badaki Europako dantzek beste kultura eta herrienganako hurbilketa sustatzen dutela. “Doinuok eta dantzok hain dira ederrak, hain dira erakargarriak, gorputzean sentituz, eta horrekin gozatuz, estimua pizten dutela, irekitasuna, adeitasuna, begirunea... Hitzen beharrik gabe, Europako dantzak bakerako hezitzaile apartak dira”.

Hala ere, Europako dantzak helburu ludikoaz erabil daitezke, besterik gabe. Horretarako, hamaika dantza daude; errazak, dibertigarriak eta politak, zailtasunaren arabera hainbat adin mailatara egoki daitezkeenak. Eta hori

guztia doinu eta mugimendu gustagarriez egiten denean, dena errazagoa da.



Biodantza

Dantza, bizitza eta artea; hiruak biltzen ditu. Teresa Lopez de Munain irakaslearen hitzetan, “bizitzaren dantzan murgiltzeko artea da biodantza”.

Dantza gizakiaren adierazpenik zaharrenetakoa da, bizitzarekin batera hasten dena, eta ez soilik gizakiaren bizitzarekin, unibertsoa ere dantzan baitabil. Genetikoki dantza mugagabe eta misterioz parte hartzen dugu.

Kanpoko gauza guztien mugimendua, berotasuna, kolorea eta soinuak gure barneko sentipenen oihartzunak dira, gure ispilu, gure elikadura, inspirazio eta osasun; gure barrua kanpoan islatzen da.

Hor kanpoan dago biodantza. Gure gorputzaren joerak dio, mila erataria, ordena osasuntsua dela dantza unibertsal horretan neurritz eta zentzuz dantzatzeko duena. Azken batean, biodantza gizakiaren arlo guztien integrazio sistema da, Lopez de Munainen hitzetan.

Ikerketa antropologiko zabalean oinarrituta Rolando Toro, antropologo, psikoterapeuta eta artistak sortu zuen biodantza da. Horrez gain jakituria askoren batuketara heterogeneoa egin du, dantza, musika eta taldearekiko bizipenez osatua.

Zer eskainiko digu?

Bizitasunari, sentimenduei, sensueltasunari, sorkuntzari eta transzendentziari azalertzeko bidea emateko aukera izango dugu biodantzari esker.

Osagai horiek guztiak ondo nahastuko ditugu, eta ondoren, norberaren izaera edo identitatea gehituko diogu. Beti ere, osotasunaren bizipenarekin bat eginez.

Dantza, mugimendu eta jolas proposamen bakoitza, musika zehatz baten hegaletan ipiniko dugu, musikak eramaile gisa duen gaitasunean oinarrituta.

Ariketa bakoitzak izaera berezia izan behar du: harmonia, bizitasuna, poza, jarioa, bizkortasuna, sendotasuna, sinergia, eutonia, sinkronizazioa, oreka, erritmoa, malgutasuna, sensueltasuna, arintasuna, indarra, arreta, autorregulazio, guztiak landu ahal dira.

Norberarekiko, besteekiko eta naturarekiko maitasuna izango ditu oinarri biodantzak. Eta horrek guztiak ongingo dio, bereziki, komunikazio arazoak zein kultura disoziazioak dituen pertsonari, baina edonorentzat izan daiteke bizipen berezia.



Adierazpen artistikoa hezkuntzan

Plastika eta musika



Artea eta irudia hezkuntzarako tresna

“Ekoizpen artistikoak, gure errealitateari buruz hitz egiten duten heinean, imaginario hegemonikoaren alternatiba izan daitezke eta prozesu hezitzailean eduki eta zeharlerroak lantzeko birtarteko baliagarriak bilakatu”. Hala uste dute Andrea Arrizabalaga eta Ana Revuelta Artaziak ekimeneko kideek.

Ikusentzutezko ekoizpenak dira, gaur egun, identitateak definitu eta errealitatea antzemateko tresna botere-tsuen. Hala ere, askotan, baliabideak falta zaizkigu ezartzen dituzten mezu, eredu eta baloreak zalantzan jartzeko edota horiekin apurtzeko.

Zertarako balio dezake?

Artaziak ekimeneko kideentzat artea hezkuntza prozesurako tresna bezala ulertu eta erabil daitezke. Besteak beste, *curriculum*etik at geratzen diren eta jendarte osoari eragiten dioten arazo sozialak lantzeko aukera berriak ematen ditu.

Egungojendartean indarrean dagoen diskurtso hegemoniko bezala dirauten ideien kontra, ekoizpen artistikoak

hezkuntza alternatiba posiblea izan daitezkeela uste dute. Eta ere berean, gure izaera osatzen duten alderdien inguruko—generoa, adina, klasea, arraza, kultura, ...- hausnarketa sustatzeko tresna ezinhobe delako diote.

Artaziak ekimeneko kideek ekoizpen artistiko kulturekin harremana duten hezkuntza dinamikak garatzea dute xede, eta horretan ari dira. Egun, Gasteizko Artium museoan eta Montehermoso kulturgunean, Bilboko Rekalde Aretoan, Miró Fundazioan, ludoteketan edota ikastetxeetan aritzen dira.

Marratzen ikasi

“Eskolan gutako askori txirula jotzen irakatsi ziguten, jarraibide gutxierekin: non eta nola ipintzen diren hatzak, nola jo behar den nota bat edo bestea... Eta, ia beste ezer gabe, gure melodia ulergarri bihurtzen da. Baina, hatzak posizio zehatz batean jarrita, sol edo re jotzen ditugula irakutsi izan ez baligute? Nik bakarrik ez nukeen sekula asmatuko”, azaldu du Txixi Obergozo margolariak.

Bada, uste du horixe dela marrazke-

tarekin gertatzen dena. Inork ez digula jarraibiderik eman nora eta nola begiratu behar dugun edo zeri erreparatu behar diogun jakiteko. Errealitatea bera da guztiontzat, baina identifikatzen eta interpretatzen jakin behar dugula uste du: “Sinesten duguna ikustera ohituta gaude, eta ez ikusten duguna sinestera”.

Jarraibide horiek izatea mesedegarria da inguratzen gaituenari epaitu gabe begiratzeko eta gauzak zehaztasun gehiagorekin ikusteko. Eta ere barean, baita marraztu ahal izateko eta marrazkiaren bidez ikusten duguna ulertzeko ere.



Papera eta kartoia

Paperak eta kartoia eskaintzen dituzten baliabideak berriz deskubritu daitezkeela uste du Pablo Feo Gomez irakasleak.

“Betidanik erabiltzen dugu papera. Txikitatik askotariko paperak eta horiekin egiteko eskulanak ikasi ditugu eskolan. Mundu haundi-txiki horretan papera lantzeko tresnak, materialak, teknikak eta sortu daitezken eskulanak edo artelanak—non dago muga?—eten-gabe ari dira ugaltzen. Horiek apur bat gehiago ezagututa papera, kartoia, bir-



ziklapena, irakaskuntza, eskulana eta artea uztartu daitezke.

Ez gara ohartu ere egiten eta esku-eskura ditugu askotariko paper orri soltzeak lantzeko hainbat proposamen:

-Origami delakoa: papera eta eskuak, soilik, baliatuta.

-Kirigami izenekoa: papera, eskuak eta guraizen laguntza.

-Mexikoko "papel picado" delakoa: papera, mailua eta puskak egiteko hainbat tresna erabiliz.

-Txinako paper ebakiak: papera, guraizeak eta txinatarrek, bakarrik, duten trebezia nahiz pazientzia.

-Eredu japoniarrak: Internetek adibide asko eskaintzen ditu.

-Paper birziklatua modu errazak.

-Mache papera prestatu eta hainbat irudi egin.

-Kartoiaren erabilera berriak, maskarak, altzairuak, dekorazioa...

-Scrapbooking, argazkiak eta txartelak apaintzeko azken joerak.

Teknika horiek guztiak ezagutu eta behar bezala erabiltzeko orduak eta orduak behar dira. Baina horietara apur bat hurbildu gaitezke dio Pablo Feok, paperak eta kartoiak eskain ditzaketen aukerak berriro deskubrituz.



Egurra lantzen

Antzeko gauza gertatzen da egurra-ekin ere. Oso gertu daukagun materiala da, baina oraindik eskaintzen dizkigun aukera asko ditugu ikertzeko Jose Pablo Arriagaren ustez. Egurra kurbatzeko teknika berriak aztertuz gero ikasleei erakusteko edota altzari eta eskulturak egiteko hainbat aukera daudela ohartuko gara.

Esate baterako egurra lurrunaren bidez kurbatzeko teknika bat dago. Beharrezkoa da horretarako makina izatea.

Egurra laminatzeko prentsa erabiltzen jakin behar da, eta baita moldeak egiten ere.

Sormena eta irudimena lantzeko modu polita izan daiteke egurra kurbatzeko hainbat teknika jorratzea.



Perkusioa

Musika da adierazpenerako dugun beste bideetako bat. Eta perkusioak erritmoa lantzeko aukera emateaz gain, koordinazio apur bat ere eskatuko digu. Euskal Herriko panderoa eta Brasilgo batukada erabilgarriak izan daitezke helburu horiek gelan lantzeko.

Trikitixa, ahotsa eta albokarekin batera, panderoa, Euskal Herri osoan da ezaguna. Esku bakarraz hain ederki laguntzen duen perkusio tresna hau ezagutaraztea, atsegina, eskuragarria eta beharrezkoa dela uste du Urko Arozena Musikene Euskal Herriko Goi Mailako musika ikastegiko perkusio irakasleak.

Batukada, berriz, gure herrietako jai giroan erraz txertatu den estiloa da. Bere erritmo bizi eta indartsuak, inguruko edonoren arima borbor jarrarazten du. Gela barruan ikasleen motibazioa eta parte-hartzea bultzatzeko tresna paregabea izan daiteke.

Panderoarekin, oinarrizko erritmoak landu daitezke hainbat ariketaren bidez. Azkartasuna ere trebatu daiteke eta hanka, eskuak eta burua konbinatzen saiatu, ikusgarria da gainera.

Batukadak ere oinarrizko erritmoak lantzeko aukera eskaintzen du, baita inprobisazioarekin saiatzeko ere.




alvaro beñaran

ELKARRIZKETA

Luzaro psikomotrizitate eskolako irakaslea eta ASEFOPeako formatzailea.

“Haurren beharretara egokitu behar dugu; psikomotrizitate saioa ez da sakratua”



“Frustrazio
legea haurren
sozializazioa du
helburu. Pixkanaka,
umeak konturatu
behar du ezin duela
betirako jarraitu oso
txikian zenean
bezala. (...) Ez dago
bakarrik munduan
eta ezin du dena
nahi duenean egin.

”

UNEDek Bergaran duen Luzaro psikomotrizitate eskolako taldeak zazpi kide ditu une honetan. Horietako bat da Alvaro Beñaran irakaslea eta pedagogo. Bitan banatzen dute taldea: hezkuntzaz arduratzen dira batzuk, eta laguntzaz besteak. Gero, dena den, elkarrekin lan egiten dute denek. Zazpi kide horiez gain, mintegiak eta ikastaroak eskaintzen dituzten kolaboratzaileak eta irakasleak ere badiutuzte.

Bergarako psikomotrizitate eskolak eskaintzen duen bi urteko ikastaldia homologatuta dago, baina guztiz modu autonomoan funtzionatzen du, Beñaranen hitzetan.

Urteak daramatza Beñaranek HIK HASIren Udako Topaketetan parte hartzen, eta gurekin izango da aurten ere. Emango duen ikastaroaz eta, oro har, psikomotrizitateaz hitz egin dugu berarekin.



Zure psikomotrizitate praktika ikaslearengan oinarritzen da bereziki?

Nire iritziz psikomotrizitate praktikarengakoa haurrari bere garapenaren eta egiten duen prozesuaren protagonista izateko espazioa ematea da. Baina, betiere, marko batean. Hau da, ez dadila kaos hutsa izan. Badakigu haurrari askatasuna eta autonomia eman behar zaizkiola. Baina badakigu, baita ere, haur txikiak ez dituela garatuta gaitasun guztiak. Batez ere, 0-8 urte bitarteko haurrei buruz ari naiz. Nola eman protagonismoa haurrari, kaos horretan erori gabe? Bada, adinaren arabera, haurrak dituen premiak errespetatzen saiatzen gara. Hau da, adin bakoitzean haurrak dituen ezaugarriak aztertzen ditugu. Haurraren bizitza garai horretan nolakoa den ikusi, eta aurrera jarraitzeko zer behar duen pentsatzen dugu. Haurrari egiteko eta eragiteko aukerak eskaintzeko, espazio eta denbora batzuk antolatzen ditugu, eta gugan jarraera batzuk sortzen ditugu psikomotrizitate praktikan.

Hauxe da haurrei helarazi nahi diegun lehen mezua: “Zuk psikomotrizitate gelan nahiko modu autonomoan egin eta eragin dezakezu. Eta, horretarako, nik espazio eta denbora batzuk prestatu dizkizut. Gainera, jarrera zehatza izaten saiatuko naiz, zure ezaugarriak errespetatzeko”.

Horri deitzen al diozue markoa?

Bai, guretzat garrantzi handia du eta ematen ditudan ikastaroetan horixe azaltzen saiatzen naiz. Guk, psikomotrizitate saioretan, beti, hasierako eta amaierako erritualak izaten ditugu. Hasierakoari dagokionez, nire ustez, fun-


tsezkoa da, haurrak psikomotrizitate gelan sartzen direnean, berehala jolasean ez hastea. Lehenengo, bildu egiten gara, baina beraiek badakite gero jolas egin ahal izango dutela, eta, gainera, nahi duten bezala. Une horretan, legeak jakinarazten dizkiegu: “Hemen ezin da minik eman eta ezin da minik hartu”. Horixe da gure ustez funtsezko araua.

Haurra dimentsio sinbolikoan sartzea da helburua. Psikomotrizitate gelan, jolasean, dena da posible; baina maila sinbolikoan. Egiten duzuna jolasean egiten baduzu, modu sinbolikoan bideratzen baduzu, posible da. Jolasean, borroka egin dezakezu, nahi baduzu, hil dezakezu norbait, baina beti jolasean.

Gainera, hasierako erritualean, haurrek psikomotrizitate gela osoa prest ikusten dute, eta zain daude. Gure iritzi, oso garrantzitsua den beste lege batekin jolasean ari gara une horretan. Frustrazio legearekin, hain zuzen. Beti egiten da galdera bera: legeak jarri behar al zaizkie haurrei? Guk uste dugu baietz. Eta lege horrek frustrazio lege bat izan behar du.

Zer da hori, zehazki?

Frustrazio legea bi esalditan labur daiteke: “Bai, baina ez. Ez, baina bai”. Azken finean, haurraren premiak errespetatzen saiatzen den lege bat da. Sakonean, haurra, haren premiak eta beharrak errespetatzea du helburu. Baina premia horiek bete edo asetzeko moduak frustratzen du. Esaterako, haur bat psikomotrizitate gelan dauden



egurrezko piezak botatzen hasten bahaonakoa esan behar zaio: “Zuk zerbait bota nahi duzu, baina egurrezko pieza hauek ezin dituzu bota; pilotak, nahi baduzu, bai”. Guretzat zer da garrantzitsuen? Haur horrek gauzak botatzeko beharra duela. Bi urteko umeek, esaterako, espazioa eta objektuak menderatzeko, euren burua protagonista sentitzeko, munduan eragiteko, besteak beste, gauzak botatzen dituzte. Guk espazio bat prestatu behar dugu horretarako, eta beharrezko materialak eskaini. Baina, era berean, behar hori frustratzen dezakegu, horrelakoak esanez: “Orain ezin da, baina gero bai; material honekin ez, baina bestearekin bai; hemen ez, baina hor bai”.

Sarrerako erritualean, beraz, horixe da ematen diegun lehen mezua: jolas egin dezakezue hemen, baina oraindik ez. Hots, frustrazio legea transmititzen diegu: “Gero, modu autonomoan eta halako askatasunarekin jolas egiteko, hemen egon behar duzu lehendabizi, eta frustrazio hau onartu behar duzu. Ohartu behar duzu heldua dela zure segurtasuna zainduko duena, eta, gero, jolas egin ahal izango duzula, orain eta hemen zain zaudelako. Gai zarelako frustrazio legeak ezartzen duen marko horren barruan egoteko, maila sinbolikoan”.

Zein helburu dauka frustrazio horrek?

Haurraren sozializazioa. Pixkanaka, haurrak konturatu egin behar du ez dela posible betiko jarraitzea, oso txikia zenean bezala. Hau da, ume txikiak eskubide osoa du ahalguztiduntasun magikoan bizitzeko, eta dena eman behar zaio. Baina, pixkanaka, sozializatzen hasi behar du. Ez dago hura bakarrik munduan, ezin du dena egin, nahi duenean, gainera; heldutasuna lortzen ari da. Pixkanaka, gai izango da, beraz, frustrazio txiki horiek onartzeko. Hori guztia modu naturalean egiten da etxetan, eta, pixkanaka, haurra errealitatean sartzen hasten da. Ez baita posible beti dena eta berehalaxe edukitzea, eta ez da komeni, gainera. Beraz, frustrazioak modu naturalean hasten dira. Horiek laguntzen diote haurrari sozializazio bidea hasten, hor baitaude sozializazioaren sustraiak.

Haurrak bere iragazkiak eraiki behar ditu. Ezin ditu bere bulkada guztiak zuzenean kanporatu. Horrela, bada, gizakia iragazkiak jasotzen joaten da, gauzak bideratzen ikasteko. Adibidez, akaso ni ez naiz gustura egongo zuk egin duzunarekin, baina ez zaitut joko horregatik! Nik gaitasun bat garatuta baldin badaukat, gai izango naiz zuri azaltzeko, edo saiatuko naiz beste es-



tra-
tegia bat
erabiliz nahi dudana lortzen... Baina
baliabide sinbolikoak garatzen hasiko
naiz, hitza, esaterako.

Eta autonomia lantzeko ere balio al du?

Bai, balio du. Frustrazioa oso garrantzitsua da haurra autonomoa izan dadin. Haurra oso txikia deneko ahalguztiduntasun horretatik abiatzen bagara, zer gertatzen da? Haurrari den-dena ematen bazaio, edo gehiegi ematen bazaio, zer gertatzen da? Haur bategan gurasoen edo inguruaren presentzia handiegia denean, irudituko zaio modu magiko batean dena lortzen duela, zerbait behar duenean etorri egiten zaiolako. Beraz, ez du sentitzen guk estuasuna edo estresa deitzen diogun hori. Ez du mugitu ere egin behar, ez ditu baliabide berriak sortu behar, ezinegon txiki horien aurrean. Orduan, haren autonomia edo haren baliabide autonomoak garatu gabe gera daitezke.

Horrenbestez, guk beti esaten dugu oso egokia dela jasan daitezkeen estuasunak bizitzea. Hau da, garatu ahal izateko, gabezia batzuk bizi behar ditu haurrak, baina, betiere, gaindi ditzakeenak. Adibide argi bat: haur jaioberriak, hasieran, esnatu bezain pronto negarrez hasten dira, deika. Eta berehala erantzuten zaie. Baina, une batean, haurra sehaskan dagoela, zerbait entzun eta hurbildu egiten zara. Haurra han dago, esna, baina ez du negarrik egin, ez dio inori deitu. Zertan ari da? Txupetearekin, edo eskuarekin, edo izarak ukitzen... Hau da, txiki-txikitatik baliabide autonomo batzuk sortzen ari da, ama-edo aita- gabe egoteko. Bere horretan uzten badugu, haurrak ama-

rekin bizi izan dituen plazer esperientziak biziko ditu, baina bere kabuz oraingoan.

Hor daude, nire ustez, autonomiaren sustraiak, eta hortik jarraitu behar dugu hezkuntzan ere. Hau da, haurrari espazio handia eskainiz, baina baita sozializatzeko beharrezkoak izango diren frustrazioak ere.

Haur bakoitzak bere garapena duen arren, adin tarteka irizpide orokorren bat eman al daiteke?

Zaila da, haur bakoitzaren erritmoa oso ezberdina delako, baina badira zenbait erreferentzia orokor. Nik esango nuke, oso modu orokorrean, 0-1 tarte ahalguztiduntasun magikoa bizitzeko adina dela. Haurraren existentzia eraikitzen da garai horretan, hau da, "NAIZ". Funtsezko garaia da, eta gauzak ongi ez badoaz, gerora zailtasunak azal daitezke hortik. Ondoren, 1-3 tarteetan, haurrak "NI" delakoa eraikitzen du: "NI naiz". Haurra bestearengandik banatu egingo da, hots, banaketa emozionala gertatuko da. Tarte horretan, beraz, pixkanaka joango da atxikimendua amaitzen. Hiru urte inguru ditue-nean, haurrak esan ahal izango du: "Ni beste bat naiz, ez naiz zu". Horren ostean, 3-6 urteko aldirian, zeharo zabalik dago autonomiaren bidea. Haurra, batez ere, kanpoko mundura aterako da. Banaketa dagoeneko landuta dago, eta, orduan, honako hau eraikiko du haurrak: "Ni mutila naiz, edo ni neska naiz".

Ondoren, sei urtetik aurrera, haurrak errealitate objektiboaz ezagutuko du. Pentsamendu operatoriora iristen da, eta pixkanaka errealitatea modu objektiboagoan ikusten hasten da. Izan ere, 6 urtera arte pentsamendu magikoa mugitzen dira haurrak, eta 6-7-8 urte dituzteneko garaia trantsizio fase bat izaten da. Aldaketa izugarriak gertatzen dira. Haur batzuk pentsamendu magikoa egon daitezke oraindik, eta beste batzuk, aldiz, modu operatorioan pentsatzen. Horregatik, adin bakoitzean zertan ari diren begiratu behar dugu, beraientzat garrantzitsua zer den ikusi.

“
Psikomotrizitate saioa eskolan egiten denez, lagungarria da haurra ikasteko prest jartzeko ere. Hau da, guk ez dugu zuzenean ezer iraskaten baina psikomotrizitate saioan egin daiteke lan haurrak bere burua ziurtatzeko
”

Dena den, psikomotrizitatean, oro har, 3-6/8 tartea landu da bereziki. Azken aldiko joera 0-2 urteko haurrekin lan egitea da. Aldaketa handia al dator hortik?

Bai, gero eta gehiago sartzen ari da hori. Gero eta jende gehiago etortzen zaigu haur eskoletatik. Lehenik eta behin, psikomotrizitate saioa, adinaren arabera, ez da berdina izango. Horixe da psikomotrizitatearen printzipio nagusietako bat: haurren premietara egokitzea. Ezin dugu ezer inposatu. Haurrek beste modu batera egin behar dugula esaten badigute; orduan, aldatu egin beharko dugu. Psikomotrizitate saioa ez da sakratua.

Txikiakin, 0-1 urte bitartean psikomotrizitate gelara joan beharrean, noiz-behinka beraien gela egokitzea litzateke aproposena. Sehaskak eta alboratu, eta lastairak atera, aldapa txiki batzuk jarri –adina kontuan izanda beti– eta psikomotrizitate gela baten modukoa antolatu. Eta beno, egunean zehar, 20 minutuzedo orduerdian aukera horiek eskaini, haurrek euren gorputza eta mugimenduaren plazera ezagut ditzaten, euren mailan. Espazio handia egongo balitz, material horiek modu egonkorrean egon litezke gelaren alde batean.

Ondoren, ibiltzen hasten direnean, haurrek eurek hainbat aukera dituztenean eta segurtasun handiagoa dutenean, psikomotrizitate geletara joaten has gaitezke. Haur horiekin (1-2/2-3 urtekoekin) psikomotrizitate saio oso orokorrak egiten dira: hasierako erritual motz batekin eta faserik gabe. Mugimenduaren plazera, euren burua ezagutzea da garrantzitsuena. Besteak hor daude, baina garrantzitsuena haurra bera da. Sozializazioa ezin da behartu. Alderantziz, lehen-dabizi haurrak bere burua bizi behar du plazerean. Beti ere, ziurtasuna ematen dioten helduak daudelako inguruan. Ahalik eta autonomia handienaz goza dezan eta bere burua eraiki dezan. Batez ere, 0-3 urte bitartean, segurtasunaren oinarria ezarri behar dute haurrek.



Eta horrekin guztiarekin, zer da psikomotrizitate saio batek lortu nahi duena?

Psikomotrizitate saioak baditu helburu orokor batzuk. Batetik, komunikazioa; haurrari komunikatzen laguntzea, horretan sakontzea, horretara zabaltzea. Bestetik, heldutasun prozesuan bidelagun izatea; hau da, haurrari pentsamendu operatoriora iristea ahalbidetzea. Era berean, psikomotrizitate saioa eskola barruan egiten denez, lagungarria da haurra ikasteko prest jartzeko ere. Hau da, guk ez dugu zuzenean ezer irakasten. Baina egia da egin daitekeela lan psikomotrizitate saioan, haurrak bere burua ziurtatzeko, bere burua bizitzeko, bere beldurrak lasaitzeko, blokeoak irekitzeko. Hori guztia lortzen bada, haurra hobeto egongo da, ondoren, jaso beharrekoa jasotzeko. Hau da, ikasketak, edukiak... Lasaitasun psikikoa lortzen lagun diezaiokegu, jasotzeko prest egon dadin. Psikomotrizitate saioaren beste helburu orokor bat lehen aipatutako autonomia litzateke.

Helburu orokorrak lirateke horiek, baina bada gure ustez ezinbestekoa den beste gauza bat. Haur bat oso ikasle ona izan daiteke, burua besterik ez delako. Badaude, buruak baino ez diren haurrak. Badira, bestalde, gorputza bakarrik direnak. Eta baita euren afektuak gainezka dituztenak ere, eta harremanetan trebeak direnak, baina iragaz-

kiak jartzeko gai ez direnak. Uste dut psikomotrizitatearen ekarpen nagusietako bat alderdi horiek guztiak integratzen saiatzea dela. Ez haur berdinak egitea. Bat kognitiboagoa izango da, bestea afektiboagoa, bestea kirolari aparta... Baina, gutxienez, aukera eman behar zaio haur bakoitzari, ahal den neurrian alderdi horietako bakoitzean gara dadin. Eta hiruak integra daitezten. Ez dadila joan burua alde batetik eta gorputza bestetik. Biak integratu behar dira, sustraitu.

Aurten sozializazioa eta frustrazioa izango dituzu hizpide Udako Topaketetan.

Bai, horretan ari naiz lanean orain. Duela gutxi, psikomotrizitate jardunaldi batzuetan izan nintzen, eta sintoma berriei buruz hitz egiten aritu ziren han. Nire lana dela eta, sarritan joaten naiz eskoletara, eta esperientzia ugari eza-gutzeko aukera izaten dut. Irakasleekin hitz egitean, guztiak esan didate haur mota berri bat agertzen ari dela. Frustrazioa jasan ezin duten haurrak dira. Ez dute izan, eta, orain, ezin dute jasan. Ematen du oso babestuta egon direla, eta eskolarentzat oso lan zaila da hori bideratzea. Beraz, uste dut horren aurrean tresna berriak sortu beharrean gaudela.

Nire mintegian horri buruz hausnartuko dugu apur bat, eta, bide batez, laguntzeko zer egin dezakegun pen-

“ Oso gaizki aplikatzen diren teoria asko daude. Gehiegi sinplifikatzen dira, eta hori arriskutsua da; zenbait ideia oso modu zurrunean aplikatzen direlako. ”

tsatuko dugu. Izan ere, haur horiek lehenengo unetik aurkako jarrera pizten dute. Besteak beste, nahiko haur manipulazialeak izaten direlako, eta, noski, ez dira haur erakargarriak. Baina, hala eta guztiz ere, haur horiei laguntzen jarraitu beharko genuke.

Eta ez haurrei soilik, baita haien familiei ere. Horrelako kasuak, bereziki, familiekin lotuta egoten baitira. Ni ikusten ari naizena ikusita, hala da. Etxean gertatutako hainbat gauzarekin dute zerikusia, eta baita lehen aipatu dudan frustrazio falta horrekin ere. Badirudi haur horiek lehendabiziko urteko ahalguztiduntasun magikoan bizi direla oraindik. Zer gertatzen da? Bada, egoera magiko horretatik eskolara ailegatzeko direla bat-batean, eta han ez dagoela magiarik. Han errealitatearekin egiten dute topo, baina ez dute baliabiderik egoera berrira egokitzeko.

Horren ondorioz, sintomak agertzen hasten dira: batzuek ez hitz egitea erabakitzen dute, besteak kaka gora eta behera hasten dira, beste batzuek izugarritzko kasketak harrapatzen dituzte, beste batzuek somatizatu egiten dute, eskolara joan nahi ez dutelako...

Eskola gehienetan atxikimendua ari direla lantzen bereziki...

Gauzak aldatu egin dira. Lehen haur deszentratuak eta inhibituak izaten genituen. Agian, gurasoak oso perfektionistak zirelako edo. Horrelakoe-kin, bazenekien nola jokatu. Baina

oraingoak ongi zaindutako haurrak dira, hau da, maitatuak. Alor horretan ez dute arazo handirik. Nik esango nuke, batez ere, sozializazio arazoa dela. Zer gertatzen da? Guraso horiek, izugarri ‘maite’ dituztela haur horiek, baina ez dutela batere argi lehen aipatu ditugun legeak jartzearena. Badirudi haurrari ezetz esatea haren nahiak ez errespetatzea dela.

Oso gaizki aplikatzen diren teoria asko daudela uste dut. Gehiegi sinplifikatzen dira, eta hori arriskutsua da, zenbait ideia oso modu zurrunean aplikatzen direlako. Haur horiei gertatzen zaiena da ez dutela sozializazio prozesu progresibo bat izan.

Alde batetik, biktimak dira, baina berehala bihurtzen dira irakasleen borrero. Zer egin haur batek hitz egiten ez badu? Baina ez da beldurtia delako, lotsatia... Nortasun handiko haurrak dira, eta izugarri defendatzen dute beraien espazioa. Kosta egiten zaie irekitzea.

Adibide bat: hasieran harreman arkaikoa dugu, amaren –edo hor dagoen pertsonaren– eta haurraren arteko harremana. Harreman hori oso da estua, eta esaten da harreman horretan ez dela hirugarren pertsona bat sartzen. Bada, esan dezakegu haur horiek apur bat harreman horri eutsi egiten diotela. Ez diote hirugarrenari sartzen uzten, ez dute hori lortzen. Hirugarrena izan daiteke irakaslea, izan daitezke beste haurrak...

Haur horiek beste haur batekin ha-



rremanik sortzen badute, harreman esklusiboa izaten da. Esango nuke maila guztietan eusten diotela haur horiek aipatutako harreman arkaiko horri. Horregatik ezin dute zabaldu, mundua da hirugarrena, eta haur horiek munduari esaten diote: nire bizitzan sartuko zara, nire ama bezalakoa baldin bazara soilik. Oso muturreko harremanak ezartzen dituzte; edo dena edo ezer ez. Oso zaila da.

Haur bakoitza mundu bat da. Asko zabaltzen ari den ideia da, baina hor ere ez al dago nahasketa apur bat?

Horregatik esaten dut nik asko sinplifikatzen ditugula teoriak. Bai, haur bakoitza mundu bat da. Baina beharrezkoa da, era berean, egitura komunak izatea. Ondoren, egitura horien barruan haur bakoitzarengana egokitu ahal izango duzu. Uste dut horretan sakondu behar duela hezkuntzak: euren baitan egokitze aukera eskainiko duten zein egitura osa daitezke? Uste dut oso interesgarria dela nondik norako bat izatea, gainerakoan...

Gizartea bera ere aldatzen ari da. Indibidualizazioa, Interneta, bideo jokoak... Horrek ere badu eragina harremanetan.

Nik uste dut baietz. Gaur egun, gainera, gizartean dauden arazoei buruz hitz egiten dugunean, esaten dugu hezkuntzan nerabeekin egin behar dela lan. Eta nire iritziz, berriz, gakoa 0-6 adin tartean dago; batez ere, 0-3 adin tartean. Izan ere, horezartzen baitira oinarri guztiak!

“Gero landuko da”, pentsatzen dute askok. Hitz egiten duenean, ulertzen duenean, orduan egingo dugu lan. Hori dela eta, proiektu gehienak nerabeei zuzentzen zaizkie, baina ordurako gauzak bideratuta daude. Sustraiak umetan ezartzen dira: zaindu, errespetatu, baina, era berean, mugak jarri. Inork ez du errezeta magikorik, ez dakigu nolakoa den benetan gizakia. Baina pentsatzen dugu, horrela, haurrak aukera handia izango duela bere buruarekin ziur sentitzeko, eta baita alda-



Alvaro psikomotrizitateko ikastaro bat gidatzen.

menekoak hobeto onartzeko ere.

Etengabeko dialektika da. Hau da, nik neure burua subjektutzat ikusten badut, gainerakoak ere hala eraikiko ditut. Eta alderantziz; besteak nire aurrean subjektu moduan agertzen badira, lagundu egiten didate niri nire burua ere subjektu gisa eraikitzen. Baina ni objektu gisa tratatzen banaute, nik ezingo ditut subjektuak eraiki, eta objektuen munduan biziko naiz. Objektu hutsa besterik ez naiz izango neure buruarentzat, eta gainerakoak ere halakoa izango dira. Eta, horrela, guztia da posible; objektuak erabili egiten baitira, eta subjektuak, aldiz, kontuan hartu.

Urteak daramatzazu lan honetan. Sumatu al duzu garapenik?

Aipatu ditugun sintomek eraginda, gu ere ari gara gure krisia jasaten. Baina dinamika orokorrean, uste dut gu, adinaren arabera, gero eta gehiago saiatu garela zehazten. Agian, hasieran ez zegoen hain argi adin bakoitzean zer egin beharzen. Eta oraindik ere badaude zalantzak, ezin dugulako esan bi urtekoen gelan gauzak modu batean egiten direla, eta 3 urtekoen gelan beste modu batean.

Garrantzitsuena egokitzen joatea izango da beti. Baina nik uste dut printzipio orokorreari eutsi egin zaiela.

Agian, gure lanaren atzean dagoen zergatiari begiratu diogu gehiago, ezkuntuan dagoen teoriari. Praktikak bere garapena izan du, ipuina alde batean edo bestean sartu dugu, eta doitze batzuk ere izan dira. Baina horretan ere bada go autonomia, guztiok ez dugu guztiz berdinean egiten.

Doitzea eta egokitzen joatea da printzipio nagusietako bat. Adibidez, txikienekin, egun batean 1-2 urteko haurrekin ordubete duzu psikomotritate lantzeko, baina, akaso, egun horretan ikusi duzu haurrek 20 minutuekin nahikoa izan dutela; saioa bukatu eta kito. Ezin dugu pentsatu psikomotritate saioa oso garrantzitsua dela eta derrigorrean egin behar dela eta... Garrantzia duena ez da psikomotritate saioa, haurrak baizik. Psikomotritate baliabide bat da, ez da helburu bat.

Psikomotritateak izan al dezake balioa 10-11 urtetik gora? Eta nerabezaroan?

Printzipioak eta filosofia aplikatu daitezke. Psikomotritateak bide asko zabaltzen ditu. Baina nik, bereziki, hezkuntzak egiten duen gorputzaren irakurketaz hitz egingo nuke. Izan ere, 8 urtetik aurrera batez ere, kirolarekin lotzen da. Eta kirola egitea ez dago gaizki. Baina kontuan hartzen dira gorputz in-

alvaro beñaran



Irakasle eskolan oso leku gutxi dago adierazpena lantzeko, musika, artea, gorputz adierazpena... Horien inguruan espezializatuko den irakasle eskola bat.

Guk beti ikusi dugu ez dela erraza psikomotrizitate formazioa unibertitate munduan sartzea. Agian, orain, europar espazio berri honetan... Baina orain arte, behintzat, ez! Irakasle eskolan, batez ere haurrekin, zer egin ikasten da, ekintzak ikasten dira. Baina uste dut hezitzailearen irudia bera eta harremana gehiago lantzea falta dela. Batez ere, hor dagoelako oinarria: sortzen dugun giroan, sortzen dugun harremanean, eta profesional bakoitzaren atzean dagoen pertsona horretan... Azken batean, haur txikiak eragina dutelako gudan, nahiz eta nahi ez izan. Juanjo Kintelak esaten zuen: "Haurrak afektibitatearen hondeamakinak dira". Irekitzen bazara hustu egiten zaituzte. Hezitzaileak, beraz, ongi prestatuta joan behar du. Bere burua defendatu ahal izateko, eta haurrei emateko, noski, baina neurrian. Indarrak xahutzen badituzu, ez duzulako balio, ez haur horrentzat ez besteentzat. Eta uste dut zaila dela diskurtso hori unibertsitetean sartzea. Esaterako, guk dugun prestakuntza pertsonalaren alderdia zaila da. Azken batean, mundu afektibo hori ezin baita ikasi, bizi egin behar da, eta norberak jakin behar du nola sentitzen den egoera horien aurrean.

Sarritan pentsatzen dugu haur txikiak ez direla ezertaz ohartzen, baina gutziz oker gaude. Psikomotrizitate saioan ortozik ibiltzen da Alvaro Beñaran, eta honela esan zion behin hiru urteko neskato batek: "Alvaro, azkazalak moztu dituzu!" Zur eta lur geratu zen, ez baitzuen horrelakorik espero.

dar-
tsuak, malguak, azkarrak... Hala ere, badago, era berean, sentitzen duen gorputza, gorputz adierazkorra... Beraz, uste dut, gorputzaren gaineko irakurketa gehiago zabaldu beharko litzatekeela.

Bestalde, nik uste dut horrelako saioetan erritualak egin beharko litzatekeela. Eta gazteekin hitz egin beharko litzateke, zer egingo dugun komentatu, haien parte-hartzea bultzatu... Akaso arau batzuk eman daitezke, eta asma ditzatela beraiek jokoak. Eta, noizbehinka, psikomotrizitate saio bat egin daiteke, txikitako jolasak eta horrelakoak egiteko, izugarri gustatzen zaie. Plazer hori oroitzeko aukera ematea da, horrelako oparitxoak egitea...

Gainera, adin horretan asko hitz egin daiteke beraiekin. Hezitzaileak helburu edo proiektu bat izango du, baina eska ditzake ikasleen proposamenak. Ez dago horretarako arazorik. Azken batean, hori da nahi duguna, ezta? Eurek ere gauzak proposatzea, pentsa dezatela, ekimena edukitzea, sortzaileak izatea...

Begira, psikomotrizitatearen beste helburuetako bat horixe litzateke: sortzaile izatea. Baina ez sormen artistikoaren zentzuan. Haurra zentra dadila bere baitan, eta egin ditzala gauzak barrutik ateratzen zaizkion moduan. Adibidez, badaude oso txikitatik ongi marrazten duten haurrak; ikasi egin dutelako. Baina hor ez dago arimarik, haur hori ez da sortzailea, irakatsi egin diote. Beste batek zirriborro bat egin dezake, baina bere etxea egingo du, ikasia baina berea. Horixe da sortzaile izatea. Bakoitzak bere modura egitea, guztiok dugulako zerbait barruan.

“ Haurrak afektibitatearen hondeamakinak direla zioen Juanjo Kintelak. Irekitzen bazara, hustu egiten zaituzte. Hezitzaileak, beraz, ongi prestatuta egon behar du. Bere burua defendatu ahal izateko eta haurrei emateko, noski, baina neurrian. ”

E


Museo bat baino askoz ere gehiago !

gizarte ekintza

hezkuntza



ETORTZEN BAZARA EZ DUZU ALDE EGIN NAHI IZANGO!



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**Zatoz Zientziaren
kutxaGunea**

- Museoa handitu dugu, GAIA: Energeia eta Natura atal berrieekin. **BERRIA**
- 170 esperimentu interaktibo baino gehiago.
- Planetarium Digitala.
- Planetarium Txikia.
- Simulagailua: Errusiar Mendia.
- Animazio ekintzak eta tailerrak, adin guztietako jendeari zuzenduta.
- Bestelako zerbitzuak: aparkalekua, kafetegia, denda, pic-nic gunea, ingurune aparta.

Zientziaren kutxaGunea

Mikeletegi Pasealekua, 43-45 – 20009 Donostia
Tlf: 943 012 478. www.miramón.org
kutxaespacio@kutxagunea.org

zer nahi duzu bihar?

Irakaskuntza 2.0

Belaunaldi berriko ikasle eta irakasleak gara, bigarrena gehiago, beharbada. Horregatik teknologien erabilera da gure eguneroko bizitza, bai lagun giroan gaudenean baita lanean ere, noski. Elkarrekin egiten dugu lan, baina batak Donostian eta besteak Eibarren. Telefonoaren erabilera ondo dago, baina azkar deskubritu genituen sareak eskaintzen dituen aukerak, telefonoaren erabilera ia guztiz alboratuz.

Dokumentu berdinekin egiten dugu lan, hobeto esanda dokumentu berekin. E-postan atxikitutako artxiboan kaosa aspaldi utzi genuen alde batera; ez dakizue zenbat denbora irabazi dugun. Biltzea eta berreskuratzea ezin ditugu ordenagailu batera edo bitara lotu, horiek eskuratzeko aukera edonon eta edonoiz izan behar dugu, horregatik erabat fidatzen gara Internetek eskaintzen dizkigun aukerekin.

Biak irakaskuntzan aritzen gara, baina unibertsitatean eta besteak euskaltegian, eta bide batez, Kosmodisea proiektuan murgilduta gaude; lau urtez Gipuzkoako eskolekin eta irakasleekin teknologia berriak eta ekintzailatasuna lantzen. Esperientzia irabazi dugu eta errealitatea ikertzeko aukera ere eman digu. Hainbat iturritatik edan dugun gure eskolen eta irakasleen teknologien gaineko ezagutza zein den deskubrituz. Eta horren aurrean zerbait egin behar dugula pentsatzen dugu; oroko-



Lorea Fernandez eta Itsaso Izagirre

rrean, irakasleek teknologia berrien arloan duten ezagutza nahiko apala baita.

Unibertsitatean irakasle berrien prestakuntzara dedikatzen da Lorea. Hain zuzen ere, hezkuntzari aplikatutako teknologia berriak ikasgaia ematen du, eta etorkizunean irakasle izango diren neurrian, teknologia berriekin irakats dezaten eta horien ikaskuntzan eta aplikazioan inplika daitezten bilatzen du. Itsasok, euskaltegian, irakasle esperientzia berriak bizi ditu. Besteak beste, euskara on-line ikasteko modu berriak aztertzen. Gure buruarekin eta gure ikasleekin teknologia berrien gainean solasteko eta lanean integratzeko ahaleginetan gabilitza. Guretzat dituen mesedeak besteek ere ikus ditzaten nahi baitugu!

Gaur egungo ikasleez ari garenean natiibo digitalak direla entzuten dugu. Hain zuzen ere teknologiaz inguratuta bizi dira eta horien erabilpen masiboak egiten dute: sare sozialak, musika eta filmeak jaisteko programak, komunikazio bide berriak... Baina teknologia hori norberaren mesederako eta ikasteko erabiltzea beste gauza bat da. Guztiek ezagutzen dituzte testu prozesatzaileak edo Interneten bilaketak egiteko hainbat nabigatzailearen existentzia. Baina garrantzitsuena kompetentzia teknologikoak bereganatzen ikastea da, hau da, gailu eta aukera horietatik ikas dezatela, gero euren lanean ahalik eta modu eraginkorrean erabiltzeko. Ikasle horiek gela batean kokatzen dira, irakasle batekin lanean egongo dira, funtsean hori ez da aldatzen. Baina

gogora ekar dezagun, orain momentu honetan eragin eta zoramena sortzen duen eskola 2.0 programa. Ikasleek ordenagailu bat dute ikasteko, baina jakina da bakarrik ez dutela ikasiko eta gidaritza bat behar dutela, irakaslearen beharra izaten jarraituko dutela, alegia.

Garbi dago eskola 2.0 delakoak irakaskuntza 2.0 izenekora eraman gaitzakeela, baina horrelakorik gertatzen al da? Gure esperientziaren arabera ez gehiegi. Eta are gehiago, hutsune handia ikusten dugula esan behar dugu. Horregatik pentsatu genuen ikastaro hau eskaintzea. Ikasleekin lan egiterako hainbat aukera aurkeztuko dizkizuegu; eta baita horiek eskaintzen eta bideratzen lagundu ere. Beti ere, hizkuntza erraz batean, ulertzen dituzten aukerak, eta modu onenean egokitzen direnak aukeratuz, curriculumean tartea eginez eta beste gaietara ere zabalteko asmoz, elkarlana eta elkar eraikitzea sustatuz.

Eskoletan dauden irakasleei edo jakinmina duen edonori zuzenduta dago guk hemen proposatzen dugun ikastaroa. Web 2.0aren inguruko sarrera bat egitea dugu helburu, eta eskaintzen dizkigun aukera anitzak, ez guztiak, modu erraz eta dibertigarrian gure irakasleei irakastea. Ikastaroan izena ematen duten pertsonen inplikazioa eta parte hartzea nahi ditugu, teoria ondo dago, baina jakin badakigu ikasi, benetan, praktikatzen eta parte hartzen ikasten dela. Hortaz, praktikarekin ulertuko dugu zer den web 2.0a. Teknologia sortzen duen beldurra alde batera uzten saiatuko gara. Horretarako, aplikazioez hitz egiten dugunean zertaz ari garen jakingo dugu eta hori kontuan izanda gure testuinguruan (lanean) izan ditzaketan erabilerak aztertuko ditugu, konple-

xua den edo ez pentsatzen jarri aurretik.

Irakasleak Interneten topa daitezkeen baliabideak, edo eurek erabiltzen dituztenak gelan erabiltzera hurbil daitezkeen izango da helburu nagusia. Aukera ugari dago horretarako, baina gure asmoa bi tresnetan zentratzea litzateke: wikiak eta plataforma birtualak erabiltzea. Irakaskuntzaren esparruaz hitz egiten dugunean, kontua ez da tresna horiek gelara eramatea, soilik, gainerako lankideekin ere tresna horiek erabiliz lan egiteko aukerak bultzatzea eta sustatzea baizik. Hain zuzen ere, egunero egiten ditugun lanak errazteko erabiltzea. Egia da, ere berean, ikastarotik ez garelako guztiz jakitun irtengo, Internet etengabe aldatzen ari delako eta jarraipena gertutik egin behar zaiolako. Gu horretan gabilitza etengabe, egonkortasuna eta emaitzak aztertu behar dira tresnak baloratzeko unean, eta horiek erabilgarriak ez direnean beste aukera batzuk bilatu.

Garbi dago ikasleekin lan egin behar dela, eta irakasleei horretarako bidea erraztu nahi diegu ikastaroan. Irakasleek baliabide berriak baldin badituzte, beste irakasleekin elkarrekintza prozesuak sortuko direla jakina da, eta horrek bilakatzen ditu tresna horiek aberasgarriak eta errealak. Azken batean, bi pertsonen arteko elkarrekintzak pertsona bakar batenak baino aberasgarriagoak izango direlako. Aberasgarritasun hori ikasleek ere antzemango dute Internetek elkarlanerako eskaintzen dituen baliabideak handiak baitira. Eta gainera, hainbat kompetentzia eskuratzeko lagungarriak dira; ez soilik digitala, baita linguistikoa, matematikoa, ikasten ikastekoa... ere.

Indibidualizazioaren aurrean, elkarrekin eta modu kooperatiboan egiten den lana bultzatu behar da irakasleen artean; gai berdinak edo desberdinak irakatsi. Izan ere, web 2.0a elkarrekin lan egitean oinarritzen da, hori da bere funtsa eta lan egiteko modua. Denok denon artean lana egitea, hain zuzen.



Matematika tailerra

Eskuak, burua eta bihotza lanean

Txiste zahar batek dio unibertsitateko diruzainek estimazio handian dituztela matematikariak, azken finean, papera, arkatza eta zakarrontzia besterik ez omen dute behar izaten eta.

Gure eskoletan burua erabiltzeko eskatzen diegu ikasleei baina sarriegi ahazten zaigu, horretarako bihotzak eta eskuak jarri behar ditugula martxan. Haurrek manipulatzeko beharra eta gogoia dute eta aldi berean jokoak eta esperimentazioak izan behar dute erronken abiapuntua.

Baina zerekin egingo dugu topo maitematika tailerrean?

Egitea, horixe izango da gure lehenetasuna; tailerrean murgilduko gara, prototipoak eraikiko ditugu eta haiekin trebatuko gara. Abiatzerakoan edo gaiak isterakoan ipuinak, filmak, Internet edota musika erabiliko ditugu. Sakontzeko aurkezpen batzuen laguntza izango dugu, baina ludikotasunari emango diogu lehenetasuna. Hona hemen nondik norako batzuk:

« Ni letretakoa naiz »

Sarritan entzuten dut esaldi hau matem... hitza bukatu baino lehen. Beti, helduei.

Ni ere, letra zalea naiz, bai. Gozitzen dut literaturarekin, betsolariek hunkitu egiten naute, ipuin onek laz-tandu. Ipuinak omen, gizaki batetik bestera adimenaren eta emozioen po-



Karlos Garaialde

lena garraiatzen duten erleak. Matematika ipuinez eta istorioz beteta dago: Gauss eta Arkimedes, Leonardo eta Perelman, Pitagoras eta Al Kuaritzmi, Hipatia eta Agnesi "sorgina"... **Horietako asko kontatu eta ikusiko ditugu eta gehiago ezagutzeko gogoia piztu.**

Paradoxak

Errezegi onartzen da matematikan ona dena *listoa* dela, eta, aldi berean, gure gazteen sekulako porrota irensten da natural-natural. Garrantzi handia omen du, baina asko geratzen dira bidean eta beste askok gorrotoa hartzen diote.

Matematika, neurgarria dena arrazoitzea da. Errealitatea ulertzeko ereduak egitea, balio dutela ikusi eta frogatzea, eta eredu horiek manipulatzu urrutirago joatea.

Denok dakigu eskuak erabiltzen,

denok dakigu pentsatzen. Egia da hainbat erritmo egongo direla gure artean, baina erritmoarena larriagoa da dantza ikastaroan gurean baino. **Eskuak eta burua erabiliz gauzak ikasiko ditugu. Eskutik burura eta burutik eskuetara.**

Irakasle formazioa

Adituek behin eta berriz esaten dute "irakasleriaren formazioa dela aldagairik eranginkorra" ikasleengan emaitzak hobetu nahi direnean. Nola, koa da lehen hezkuntzako irakasle formazioa matematika arloan? Denetik egongo da, baina ez dira gutxi matematikak zauritu dituenak, alegia, beren formazio garaian esperientzia ezkorak jasandakoak. Eta zoritxarrez gutxi samar dira gerora euren formazioarekin jarraitu dutenak, edukiak gaurkotzen, materialak aztertzen eta arloan sakontzen.

"Matematika erraminta bat da"

Atxurra ere bai, on askoa gainera. Baina koadro bat zintzilikatzeko edo hatzazalak mozteko badira erraminta hobeak. Matematika erraminta asko dituen kutxa bat da. Erraminta horiek erabiltzen ikasten dugun heinean askoz ere eraginkorragoak izango gara gure lanean. Erraminta kutxa hori ireki eta lanean hasiko gara:

- Kalkulagailuekin buru kalkulua eta matemagia egingo ditugu.
- Papera tolestuz Megabyte eta Gigei neurria hartuko diegu.
- Geoplanoek eta papiroflexiak geometria lauarekin adiskidetuko gaituzte.



- Gominolek, bilbeek eta poliku-boek 3dimentsiotako geometriara eramango gaituzte

- Ispiluek leihoa irekiko diote mundu berri bati.

- Eta askoz gehiago...

Irakasle gehienek oso gutxi ezagutzen ditugu erraminta horiek guztiak; hona hemen ezagutu eta trebatzeko aukera.

Bi egun, oso trinkoak

Egia da, ordu asko izango dira bi egunetan pilatuak, goiz eta arratsaldez gainera. Horrela da, eta ez du beste bueltarik.

Bi ordu pasatxoko 6 saio izango dira gutxi gora behera. Saioen hasieran, "ipuinak" entzun edo ikusiko ditugu (Internet...), eta gero gure erramintekin hasiko gara lanean banaka, binaka edo taldetxotan.

Saioa ixteko bestean lana aztertu

eta, laburpen gisa, aurkezpenen bat ikusiko dugu. Atsedena, eta hurrengo saiora. Apunteak hartu beharrik gabe.

Material nagusia ikastarorako sortutako blog batean egongo da. Apunteak, argazki zaharrak bezala, gerora ikusiko ditugu. Jakinmina duenak hona helbidea:

<http://hhmateta.blogspot.com/>

Ondo pasatuko dugu

Edukiekin itsutu egiten gara. Egia da edukiaren inguruko lanak elkartuko gaituela tailer honetan, baina luzera geratuko zaiguna jakinmina eta harremanaren inguruko sentsazioak izango dira.

Udako oporren atarian gaude, festa gogo galantarekin. Lana egingo dugu baina gustora eta gozatuz.



Ahotsaren erabilera egokia

Gaur egun, irakasleen kopuru handi batek ahots arazoak ditu, eta ikastaro honen helburu nagusia eguneroko lanean ahotsa ahal den erarik egokienean erabiltzen ikastea izango da.

Zer da sentitzen duguna? Zer gerta dakiguke?

Ahotsa lan tresna moduan erabiltzen dugun ogibideetan (irakasleak, aterpetxeetako begiraleak, igerilekue-tan irakasten dutenak, esatariak komunikabideetan...), zenbaitetan ahotsa nekatuta sentitzen dugu, hautsi egingo balitzaiagu bezala.

Batzuetan, hitz egiteak nekatu egiten gaituela ohartzen gara, edo gauerako, arratsalderako, aste bukaerarako... ahotsik gabe gelditzen garela. Bestetan, eztarria urratuta gelditzen zaigu, eta min ematen digu.

Hitz egitean airea falta zaigula nabaritu dezakegu, airea maiz hartu beharra edo esaldia bukatzeko aiererik ez edukitzea izaten dira arazorik arruntenak.

Batzuek ez dute norberaren ahotsa entzuten, eta beti bortxatu egin behar izaten dute, edo giro zaratsuetan ezin dute hitz egin. Beste batzuei, berriz, ahotsaren tonua apaldu egiten zaie, eta ezin izaten dute abestu. Txangoetatik, jolas garaietatik... bueltatzean ere ahotsaren ezaugarriak aldatzen zaizkie.

Zergatik sentitzen ditut sintoma horiek?

Lehen aipatutako arazo horiek arrazoi hauengatik sor daitezke:



Jaione Txapartegi

- Ahotsaren gehiegi erabiltzeagatik: asko hitz egiteagatik, gaizki oi-hu egiteagatik, eztulagatik, marrantagatik...

- Ahotsaren desegoki erabiltzeagatik: intentsitate edo tonu desegokian hitz egiteagatik, arnasketa era desegokian erabiltzeagatik, arnasketa eta fonazioa ondo ez koordinatzeagatik, ahotsa ez inpostatzeagatik, giharren tentsioa gehiegizkoa izateagatik...

- Ahots korden patologiengatik.
- Ahots korden mugikortasunaren patologiengatik.

Komeni zaiguna zera da: ahots esfortzua gutxitzea eta ahotsak dituen aukera zabal guztiak barneratzea. Horretarako, ahots teknika egokia erabili behar dugu.

Ikastaroaren xedek eta edukiak

Norberak bere ahotsa ezagutzeak garrantzi handia du, norberaren ahotsa noraino irits daitekeen eta egoera bakoitzean ahotsaren erabilerak nolakoa

izan behar duen jakiteko. Beraz, norberak bere ahotsa ezagutzea izango da lehenengo helburua. Horretarako, ahotsa zer den eta nola ateratzen dugun ikasiko dugu.

Bestalde, pertsona bakoitzak bere ahotsa du, ezaugarri berezi batzuk dituena. Horretan ere saiatuko gara: ahotsaren ohiko osagaiak ezagutuko ditugu.

Ahotsa osasuntsu dagoen ala ez jakiteak ere garrantzia du, eta ahots osasuntsuak eta patologikoak bereizten saiatuko gara. Horretarako, gaur egun irakasleengan sortzen diren patologia ezagunenak ere landuko ditugu: laringitisak, noduluak, polipoak, edemak, korditisak, banden hipertoniak...

Horretara guztira ez iristeko, prebentzio mekanismoak ezagutu behar ditugu, eta ahotsa nola zain dezakegun ere ikasiko dugu.

Eduki praktikokoak

Orain arte ikusitako guztia era teoriakoan ikasiko dugu, baina praktikak duen garrantzia aurreikusita, eduki praktikokoak ere landuko ditugu. Hauek izango dira atal nagusiak:

- Arnasketa egokia nolakoa den ikasiko dugu. Diafragmaren mugimendua eta euskarria, fonazio denborak luzatu, zeregin aiererik gabe ez gelditze-ko, botatzen dugun airea nola doitu...

- Erlaxazioa: giharretako tentsioak gutxitzen saiatuko gara. Lepo eta sorbaldako erlaxazioaz gain, orokorra ere egingo dugu.

- Jarrerak duen garrantzia ere landuko dugu: horrek guztiak airea urdailetik bultzatzea errazten digu. Presio

handiagoa lortzen dugu eta airea hobeto aprobetxa dezakegu.

- Artikulazioa eta erresonantzia: ahotsa gure gorputzean sentitzen ikasiko dugu. Ahotsa esfortzurik gabe eta era lasaian aterako dugu. Helburua ahotsaren proiektzio egokia lortzea izango da.

- Prebentzio neurriak: gure ahalmenaren gaintik ez hitz egiten, ahots baliabideak ondo erabiltzen, garrasiak saihesten... saiatuko gara.

- Ikasi duguna eguneroko hizketan aplikatuko dugu: ikasgai bat ahoz aurkezteko, ozen irakurtzeko, haur kantak abesteko, ipuinak kontatzeko...

Azkenik, urte hauetan ahots arazoek eta disfoniak haurrengan izan duten gorakada nabarmena aipatu nahi nu-



ke. Horretan, inguruko giroak, zaratak, imitazioak... eragin handia izan dute. Hori dela eta, irakasleak nola jokatu jakin behar du: jolas garaietan eta gela barruan ahotsa kontrolatu, norberak ahotsa egoki erabili, haurrentzat eredu desegokiak saihestuz...

Horrela bada, ikastaro honetan hizketako ahotsaren erabileraren oinarria lortu nahi dugu.

Ahotsa egoki erabiltzeko burutu behar diren ariketak egingo ditugu, oinarrizko teoria ikasiz eta lan praktikoa modu aktiboan eginez.



Osasun mentala Ikastaro garaikidea



Patxi Izagirre

Nondik nora bururatu zaizu aurtengo ikastaroetan gai hau lantzea?

Osasun mentalarena disziplina bat da bere horretan, erietxeetan bere lekua dauka. Osasun fisikoari dagokionez, guztiok argi daukagu analitika batzuk egin behar direla, prebentzio lana egin behar dela, elikadura zaintzea komeni dela... Badago nolabaiteko kontzientzia bat. Baina osasun mentalari dagokionez, iruditzen zait kulturaliki oraindik ez dagoela kontzientzia hori eta bakarrik gogoratzen garela osasun mentalarekin sintoma potoloren bat dagoenean. Gainerakoetan tresna edo baliabiderik gabe geratzen gara.

Aurten pentsatu dut pixka bat horren inguruan aritzea. Gaur egun osasun mentalaren gaineko informazioa badago, tresna errazak ezagutzen ditugu eta horiek guztiak gerturatu egin behar ditugu.

Eskolaren ikuspegitik gurasoek, irakasleek nola landu beharko lukete gaia?

Heziketaren helburu nagusia haurren garapen integrala da, ezta? Bada, prozesu horren barruan norberaren heziketa psikikoa oso garrantzitsua da. Beraz, nire ikastaroaren helburua guraso zein irakasleen artean gogoeta sustatzea izango da. Azken batean ulertarazi nahi diet sarritan gai hori ez ezalduz saiatzen garela. Ardatz nagusia izango da bizitza ikus dezakegula maitasunaren aldetik, edo beldurraren aldetik. Eta iruditzen zait, zoritxarrez, oraindik, ikastetxeetan eta heziketan gehiegi erabiltzen dela errefrotzu positiboa. Hau da, saria edo zigorra. Eta uste dut gaur egun tresna horiek iraungita daudela. Horren azpian maitasunaren manipulazioa edo erabilpena dago.

Eskolan ez ezik etxean ere gertatzen da hori, eta bereziki haurra guztiz ziur sentitzen ez den adinean. Nolabaiteko prostituzio afektiboa bizi du eta gauza bera gertatzen zaio eskolan irakaslearekin, edo ondokoarekin. Uste dut hor korapilo nahiko globala sortzen dela, eta guk, hezitzaileok, jakin egin behar dugu zer gertatzen den eta zergatik. Baita zer egin dezakegun ere.

Horri guztiari buruz arituko naiz. Oinarrizko beharrak zeintzuk diren argitzen saiatuko naiz.

Zer da orduan, botere kontua? Nola ikusten duzu zuk?

Niri iruditzen zait boterearen gaia presente dagoela, baina lehendabizi ziurtasunaren arloa dago. Haurrak erabiltzen ditu aita eta ama emozioak manipulatzeko.

Azken batean, afektibitatearen inguruan arituko gara. Nola patroli berdi-

na erabiltzen dugun eskolan, edo nerabezaroan edo bikotearekin, baina askoz ere modu sofistikatuagoan. Horrelako txantaia modukoak...

Ziurtasunaren ostean etorriko da onarpena, eta onarpen behar horretan oso garrantzitsua da sozializazioa. Era berean haur bakoitza senti daiteke onartua edo ez. Autoestimua hitz egiten dugu sarri. Baina haurrak baloratuko du bere burua aurretik baloratua sentitu bada, irakaslearen, gurasoen edo lagunen aldetik errekonozimendurik izan ez badu kostako zaio ongi egotea bere buruarekin. Hor iruditzen zait gogoeta egiteko aukera ugari dagoela. Eta bai erabiltzen direla sarritan, bosterea, txantaia emozionala, erruduntasuna, beldurra, mehatxuak...

Eta komunikabideek nola eragiten dute osasun mentalean?

Bai, noski, eta batez ere esango nuke nonbait kokatzekotan eremu hori, hots, komunikabideen eta teknologia berrien eremua onarpenaren eremuan kokatuko nuke. Esterako, gazteak edo nerabeak sartzan direnean Interneteko saltsa horietan –Facebook, Tuenti, Twitter...– hor azpian dagoen beharra zein da? Ulertua, onartu eta baloratua sentitzea azken batean. Noski, beste aldean dagoenak hori manipulatu nahi badu, edo erabili nahi badu, modu narzista batean, edo modu egozentrikoan edo lidergoa markatzeko... erabili nahi badu. Bada, oso errez egin dezake. Uste dut manipulatu errazak garela, besteak beste, indibidualizazio prozesuan gaudelako. Garai bateko kode etikoko horiek edo, ez dira baliagarriak, eta

aldiz, lagunen artekoak edo sare sozia-
lekoak bai. Orduan, badago identifika-
zio bat filtratu gabekoa, baina hor az-
pian bilatzen dena da, azken finean,
errekonozimendua; norberaren izaer-
a, norberaren indibidualtasuna... eta
horrek harrapatzen gaitu, hor dago
tranpa.

Ezin dugu soilik ondorioztatu osa-
sun mentala ez dela garatuko modu
osasungarri batean. Askotan hartzen
dugun elikagaiaren arabera, organis-
moak erantzun bat edo beste izaten du:
azukrea, kolesterola... Beraz, arreta ja-
rri behar dugu gure ikasle eta seme-ala-
bak zein ideaiarekin elikatzen ditugun.
Eta ez bakarrik gaixotasuna dagoene-
an. Horregatik iruditzen zait osasun
mentala ez dela soilik gaixotasunaren

eremua, bestela oso ez demokratikoa
izango litzateke. Ez da juxtua.

Gehiago landu beharko litzateke modu prebentiboan, ezta?

Noski. Begira txikitxoekin, duela
gutxiailegatu zaigu etxera gutuna. Osa-
kidezak prestatu duen hortzetako osa-
sunerako programa. Eta nik pentsatu
nuen, aldatu hizkia eta 'dental' jartzen
duen lekuan ipini 'mental'!! Zergatik ez
diote arretarik jartzen Osakidetzatik
osasun mentalari? Osakidetzatik, edo
ikastetxeetatik edo dena delakotik. Zer
dela eta? Iruditzen zait erronka bat da-
goela horren inguruan, edo egon be-
harko lukeela behintzat!

Kontzientzia falta handia dago.

Bai, hala da. Psikologiak eta psiki-
atriak uste dut zenbait ekarpen egin di-
tuztela osasun mentalaren arloan ehun
urte hauetan. Eta zergatik ez baliatu ho-
riek guztiak heziketarako?

Azken batean zuk diozuna da, barrukoa ongi ez dagoen bitartean manipulazioa berdin gertatuko dela modu pertsonalean, etxean, kalean, eskolan, hedabideetan, teknologia berrietan...

Hori da! Azpian dagoen asetu beha-
rreko onarpena edo errekonozimen-
dua baldin bada, horren bila joan gai-
tezke Facebooken bitartez, joan daite-
ke herriko taldeko bileren bitartez, bi-
kote mota baten bitartez... Orduan iru-
ditzen zait hausnarketa egitea horren
inguruan; zein da nire beharra, zein au-
kera daukat nik hori erabakitzeko, ar-
dura hori hartzen badut zein ondorio
duen, onartzen dudan, non nagoen,
zer den zorientasuna eta horren ingu-
ruan eman beharreko urratsak... Hori-
taz arituko gara. Eta iruditzen zait hori
guztia ez dela soilik mahai gainean jarri
behar norbait terapiara iristen denean,
lur jota dagoenean. Hori guztia normal-
tasun batean hitz egin behar dugu.



WEB 2.0

eta Google aplikazioak irakaskuntzan



Maite Gorri

Zer egin ohi genuen, duela gutxi arte, irakasleok gure artean edo ikasleekin elkarlanean aritu nahi genuenean? Ohikoena, egutegi eta ordutegien baimenaz, hitzordua ipini, norbait horrekin edo horiekin geratu eta elkarrekin lanari ekitea izaten zen. Bestalde, aurrez aurre biltzea ezinezkoa zitzaigunean, dokumentuaren zirriborro bat postaz bidaltzea izaten zen istorio amaigabe baten hasiera: zirriborroa bidali, beste bertsio bat jaso aldaketez betea (askotan aldaketak bereizteko kolore ezberdinak erabiliz), berriari ekarpenak egin... Zaila izaten zen, askotan, jakitea zerk zein ekarpen egiten zuen edo zein izan zitekeen azken berrikuspena. Egia esateko, denori gertatu izan zaigu hori noiz edo noiz.

Gaur egun, ordea, erabilerrazak diren eta instalaziorik beharez duten tresna mordo bat ditugu sarean eskura, klik batera. Erreminta horiek lan egiteko prozesu osoa errazteaz gain, hori baino garrantzitsuagoa den ikaskuntza-irakaskuntza prozesua ulertzeko modu berri bat eskaintzen digute. Tresna eta filosofia berri horiek ikasle zein irakasleentzako partaidetza, trukea eta elkarlana modu erakargarrian eta dohainik susta dezakete, ezagutza denon artean erakitzeko aukera eman, eta irakaslea XXI. mendeko eskolaren bidean ipini, besteak beste, informazioaren kudeaketa erraztuz eta multimedia baliabideez osatutako jarduerak diseinatzen lagunduz.

Ez dira gutxi irakasleentzako jarduna errazten dituzten baliabideak: platafor-

ma birtualak, blogak, wikiak, webquestak, ariketa sortzaileak... Horregatik, sarri, abian ipini nahi dugu, baina ez dakigu oso ondo nondik hasi. Sareak oparitzen dizkigun aukera anitzetan galdu egin ohi gara.

Horiek horrela, Google unibertsoa ezagutzea aukera polita bezain praktikoa izan daiteke. Dagoeneko mundu osoan zehar 8 milioi ikasle baino gehiago baliatzen ari da irakaskuntzari begira Googlek garatutako aplikazio sortaz: Gmail, Calendar, Docs eta gehiago. Zerk egiten du aukera hau beste batzuen aldean erakargarriago? Bada, hasteko, eskaintzen dituen aplikazioen kalitatea; jarraitzeko, eskuragarritasuna eta erabilerraztasuna. Posta kontu bat baino ez da behar aplikazio sorta osoa erabiltzen hasteko. Eta horrek,




onar dezagun, izugarri samurtzen du web 2.0rako bide hainbatetan mal-kartsua.

Googlek garatutako aplikazioek komunikazioa eta elkarlana errazten dute. Komunikazioa areagotzen da posta, partekatutako egutegi eta integratutako bideoen bitartez, besteak beste. Bestalde, Google Docs eta Google sites erabilia, irakasle eta ikasleek edonoiz eta edonon dokumentuak

(dokumentu arruntak, aurkezpenak, formularioak...) parteka ditzakete, hizkuntza informatikoa jakin gabe web-guneak sortu eta gehiago. Elkarlana erraztu eta sustatzeko garatuta daude.

Hona hemen, grafikoki azalduta, ezagutuko digutun aukera horietako batzuk:



Nola gainditu jendaurrean hitz egiteko dugun beldurra? Zein garrantzia du ahotsak komunikatzeko orduan?



Ahotsak Studio Voices ahotsa garatu eta landu nahi duten hainbat arlotako erakundeei zerbitzuak eskaintzen dizkien enpresa bat da. Ondorengo esparruetan egiten du lan: enpresa, musika, komunikabideak, hezkuntza, osasuna, politika eta antzerkia.

Enpresa honen helburua interesa duten erakunde horietako langileak ahotsaren profesional moduan trebatzea da. Nork bere esparruan ahalik eta modu eraginkorrenean erabil dezan ahotsa.

Komunikazioa bizitzaren ardatz nagusi bihurtu da gaur egungo gizartean. Horrenbestez, komunikatzen, limurtzen eta ideiak adierazten jakitea beharrezko tresna bilakatu da gero eta lehiakorragoa den enpresa eta lan munduan. Baita eskolan ere. Izan ere, hezkuntzan ahotsa ezinbesteko tresna da, eta irakasleak komunikazio lanean ari dira etengabe.

Hori dela eta, Ahotsak Studio Voices hezkuntzaren alorrean ere ari da lanean eta hainbat zerbitzu eskaintzen ditu. Besteak beste, irakasle eta ikasleen arazoak diagnostikatu eta irtenbideak proposatzen ditu. Baita eskola eta unibertsitateetako zuzendaritza taldeei ere. Bestalde, eskolako aurkezpenetarako, ahozko azterketetarako, berariazko



Ana ELORZA MENDIA

AHOTSAK STUDIO VOICES-EKO
ZUZENDARIA ETA IRAKASLEA

proiektuetarako, bileretarako, mintegi-
tarako, hitzaldietarako, curriculum
proiektuetarako... laguntza eskaintzen
du.

Halaber, irakasleentzat hain garrantzitsua den tresna hori, ahotsa, mantentzeko zerbitzuak eskaintzen ditu: ahots osasuntsua edukitzeko ikastaroak eskainiz eta ahotsa ez galtzeko arrisku faktoreak zehaztuz.

Irakasleen beldurra

Ez da irakasle guztien kasua, baina zeEz da irakasle guztien kasua, baina zenbaitek beldur eszenikoa edo deitzen diogun hori izaten dute. Gurasoe-

kin hitz egitea, klaustroan esan beharrekoak esatea edo mailako bileretan hitza hartzea...ez da Irakasle askori, kosta egiten zaio, sarritan, barruan duen hori azaleratzea, bere iritzia ematea. Badira egoera horri aurre egiteko hainbat teknika edo estrategia eta horiek landuko ditu Ana Elorzak Ahotsak duen garrantzia jendaurrean hitz egiteko trebeziak garatzerakoan izenburuko ikastaroan.

Lehenik eta behin, irakasle bakoitzaren kasua aztertu beharko genuke, eta behin egoera ezagututa hortik abiatu. Lehen urratsa, beraz, diagnostikoa egitea litzateke. Irakasle zehatz horren kezka nagusia berezkoa duen beldur bat baldin bada, esaterako izaeraz oso lotsatia delako, bere izaerari dagozkion zein ezaugarri indartu ditzakegun aztertu beharko genuke lehenik. Eta horren arabera ariketa batzuk edo beste batzuk proposatuko genizkioke. Adibidez, hainbat irakurketa ariketa egin ditzake, edo gauza oso simple bat aurkezteko ariketatxo bat egin. Horien ostean, berehala, jende aurrean praktikatzen hasi beharko du. Bat-batean; inolako zalantzarik gabe.

Zenbat eta lehenago jabetu bere errealitateaz, orduan eta indar gehiago eman ahal izango dio bere buruari. Bai-

na horretarako, lehenbailehen ikusi behar du zein arazo eta muga dituen jendaurren ipintzen denean.

Horixe izango litzateke lehenenda-biziko kolpea. Behin arazoa zein den zehaztu dugunean, laguntzen ari den irakaslearen txanda helduko litzateke. Hau da, ariketa zehatz horiek nola egin behar dituen azaldu beharko dio: esate baterako, irakur dezagun testu hau honela, edo egin dezagun aurkezpen bat bilera batean egongo bagina bezala... Bada irakasleak ariketa horiei guztiei ekin beharko die, eta behin eta berriro frogak egin. Egitearen poderioz ikusi ahal izango du ea, oraindik, egonezina edo kezka sortzen dion egoera horrek. Ziurrenik, gaia ongi prestatzen badu, entseguak egiten baditu, azken batean behin eta berriz errepikatzen jardun badu, denborarekin ziurtasuna lortuko du. Baina egia da, era berean, pertsona hori izaeraz ausartaz ez baldin bada, gehiago kostako zaiola. Seguruagoa den irakasleak beti izango du erraztasun gehiago jendaurrean aritzeko, baina baita hanka sartzeko ere.

Parte-hartzea bideratu

Bakarrik ez ezik, irakasleek, sarritan, taldean egin behar izaten dute lan. Baina gehienetan gertatzen da, biltzen direnean beti bik, hiruk edo lauk hitz egiten dutela. Horrelakoetan, zer egin daiteke gainerakoek ere hitz egin dezaten? Zenbaitetan, gerta daiteke, beti lau pertsona horiek hitz egitea, lan egiteko eredia horrela ezarrita dagoelako. Kasu horietan hainbat urrats jarrai daitezke. Esaterako, berez zama ho-

Ziurrenik irakasleak gaia ongi prestatzen badu, entseguak egiten baditu, azken batean behin eta berriz errepikatzen jardun badu, denborarekin lortuko du falta zaion ziurtasuna.

ri hartzeko joera baldin badute, lau horietako bakoitzak gidoi bat presta dezake. Horrela, inguruan dituzten gainerako pertsona horiek ezagutzen dituztenez, euren gidara moldatu ahal izango dituzte. Nola? Adibidez, honelakori edo halakori gai zehatz baten inguruan –bereziki interesa saskiokelako– zuzenean zein iritzi duten gal-detuz.

Gauzak argien dituztenek egin behar dute ahalegina aipatutako parte-hartzea bideratzeko. Hortik hasi beharko lukete, behintzat. Hau da, ingurukoei konfiantza eman. Ea, bide horretatik, hitz egitera ohituta ez dagoen pertsonak, pixkanaka, zerbait gehiago eman dezaken. Hitza hartzen duenak ardura hori dauka apur bat; denek parte har dezaten giro egokia sortzekoa, alegia. Talde txikian zein handian izan.

Talde handia

Demagun klaustroko bileran lau pertsona, zuzendaria, zuzendari ordea eta ikastea buruak, berrogei lagunen aurrean jartzen dituzula hizketan. Kasu horretan ikasketa buruak garrantzia edo pisu handia izango du. Hark ezagutzen dituelako, nolabait esateko, irakasle guztien izaerak, joan etorriak, kezkek... Oso argi izan beharko du, gidoi baten inguruan bidea sortzea dago kiola, nolabait, eta zuzeneko harremana sortu behar duela gainerako irakasleek ere hitz egin dezaten. Lau pertsona horien egiteakoa moderatzailea eta sortzailea izatea da.

Uneren batean isilune bat sortzen bada, utzi egin beharko dute, tarte bat eman jasota geratu dadin. Horrela guztiek nabarituiko dute inflexio puntu bat izandela. Baina hitz egiten ari zenak berehala konturatu beharko du egoera eta hurrengo puntuari eutsi beharko dio. Prestatuta zuen gidoiari berriro heldu eta aipatu behar dituen gaiekin jarraitu beharko du. Intuzioak garrantzia handia du horrelakoetan. Baina isilune horiek, utzi egin behar dira, mahai gainean ipini. Eta hurrengo batean gauza bera gertatu ez dadin oharra hartu, noski. Baina ezin dugu onartu betiko lauek etengabe hitz egitea eta gainerakoak isilik egotea. Akaso urte osoan hala gertatutako da, eta zer egingo diogu. Baina behintzat hitz egiten dutenek,

Zenbat eta lehenago jabetu errealitateaz, orduan eta indar gehiago eman ahal izango dio bere buruari. Horretarako lehenbailehen ikusi behar du zein arazo eta muga dituen jendaurrean ipintzean.



moderatzen dutenek, aukerak sortzen jakin behar dute. Bideak eskaini behar dituzte.

Bestela oso eroso da; eserita dagoenak entzun besterik ez du egin behar. Informazioa jaso eta joan egingo da. Ondoren, kafe makinaren alboan, edo talde txikian, daukan kezka hori agertzeko. Hori jarrera normala da, guztiok egiten dugu, baina kezka hori talde handian ateratzea lortu behar da.

Zein abantailadituen hori guztia bideratzeak? Bada, azken batean lortzen dugu isilik egon ohi diren horiek ere ahots bat izatea, noizean behin bada ere. Eta horrek taldeari lizugarri laguntzen dio, aberastu egiten du. Eta hori da helburua ezta? Bestela zer gertatzen da? Bada guztiz sailkatuta geratzen garela, betikoek hitz egingo dutela. Eta protesta egin nahi baduzu, aurretik hitz egitea komeni da.

Helburua zehaztuta eduki

Gauza bat talde handian, lankideekin, hitz egitea da. Baina bestea, guztiz ezberdina, gurasoen aurrean aritzea. Askorentzat horixe izaten da kezka nagusia, ikasleen gurasoen aurrean hitz egin beharra. Kasu horretan irakasleak, oso garbi eduki behar du bere urteko plangintzak zein helburu dituen. Horiek idatzita eduki behar ditu irakasleak, eta etxean entseguak eginda joan behar du bilerara: “Nik honakoa esango dut, honi buruz hitz egingo dizuet, eta horiek azaldu ostean galderak egi-



Hitza menderatzen ez duenak asko irakurri behar du; arnasketak bere lekuan jarri, gidoia behin eta berriz bere ahotsean entzun, inguruko lagunekin entseguak egin...

teko tartea utziko dizuet. Zein kezka dituzue?”

Aurkezpen horrek irakaslearen ispilu izan behar du; ikasturte osoan egin asmo duenaren azalpen zehatza. Gurasoek tutoreak ikasturte horretarako duen helburu nagusia zein den ulertzen badute, garrantzitsuena egin dago. Irakaslea esandako horretan seguru ikusten badute, gai horren inguruko galderak egingo dizkiote. Eta bestelakoak urteak aurrera egin ahala azalduko dira; ikasle jakin batekin edo familia jakin batekin izan daitezkeen arazoak, esaterako.

Ziurtasun bila

Hiru urrats eman behar dira, beraz: helburuak zehaztu, gida bat egin eta behin eta berriz errepikatu. Eta ez da soberan izaten norik bere burua grabatu eta nola hitz egiten dugun ikustea; baita zuzentzen edo hobetzen saiatzea ere. Hori litzateke irakasleak bakarka egin beharreko lana, ahalik eta ziurtasun handiena lortu nahi badu behintzat. Edozein bileraren aurrean, aipatu nahi diren gauza horiek guztiak argi izatea komeni da. Aldez aurretik esan beharrekoa errepasatu behar da, eta zertaz hitz egin nahi den zehaztu. Besteak beste, gaitik gehiegi ez aldentzeko modua da hori.

Era berean, horrelako bilerak taldean prestatzea mesedegarria izan daiteke, baldin eta guztia ondo antolatutzen bada. Demagun, Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako ikaslee guztien gurasoekin bilera egin behar dela. Beraz,

irakasle guztiek bildu beharko dute, zuzendariarekin eta ikasketa buruarekin bileraren nondik norakoak aztertzeko. Gida moduko bat egin beharko da, eta irakasle bakoitzak bere zati edo atala izango du. Horren arabera, bakoitzak gidoitxo propioa osatuko du. Irakasle bakoitzak estilo propioa eta esateko modu berezia dituelako. Baina hori guztia ongi prestatu behar da.

Baina ezin dugu ahaztu jendaurrean hitz egiteko daukagun tresna baliagarria ahotsa dela. Ahotsaren alderdi fisikoaz gain, oso da garrantzitsua ahotsak berak zer transmititu dezakeen jakitea. Oso garrantzitsua da azaldu nahi dugun hori esateko modua. Ez da berdina gauza bat indartsu esatea edo goxotasun kutsua ematea. Horren arabera, komunikazio mota bat edo beste sortuko da igorlearen eta hartzailearen artean. Azken batean, salmenta bat egiten ari zara, jendea zureganatu nahi duzu. Hori dela eta, hitz egiten ari denak sen handia izan behar du, eta zer nolako giroa sortzen ari den somatu. Ezin du sekula isilik edo hutsik geratu, zerbait heldu beharko dio: begirada bati, ahotsaren goxotasunari...

Entzulearengana ailegatu

Horixe da, bereziki, ahotsak duen indarra. Itsuak izango bagina eta ikusiko ez bagenu jasoko genukeen lehen-dabiziko soinua ahotsa litzateke. Eta ahots horrekin batera irudi bat etorriko litzaiguke burura. Beraz, hizlari batek lortu behar du esaten duen horrekin entzulearengan zerbait sortzea: gustatzen zait, edo ez zait gustatzen, indarra edo energia transmititzen dit, adoberantziz; zalantza sortzen dit, ez daukat argi ahots horrek esan nahi didana...

Horrek guztiak, azken urteetan indarra galdu du. Zer gertatzen da? Ahoz-kotasuna ez dela behar bezain beste lantzen eskoletan. Unibertsitatean esaterako, ikasleak irakurtzen ipini eta koma bat, puntu bat edo enfasi bat adierazten ez dakitela somatzen da. Ordenagailua oso praktikoa da eta izugarri laguntzen du, baina zenbat galdu dugun oratorian? Irakasgai hori ematen duen zuzenbideko irakasle baten arabera ikasgelara ailegatzen dira, jende aurrean ipini eta euren lehen-dabiziko

kezka ahotsaren inguruakoa da, ez omen dute irakurtzeko trebeziarik. Irakurtzeko!

Hezkuntzan garrantzia gutxiegi ematen zaio ahoz-kotasunari eta gazteek unibertsitatean ailegatzen direnean, ez dakite behar bezala irakurtzen. Eta, noski, ahotsak ezin badu, besteak beste, aipatutako enfasia lortu, ez du daukan komunikazio helburua betetzen.

Denbora hartu

Aipatu dugu irakasleak entseguak egin behar dituela, nahitaez, estrategiak bereganatzeko. Entsegu horiek behin eta berriz irakurriz egin behar ditu, baina baita bere ahotsa maitatuz ere. Behin edo bitan, norik bere burua entzun eta esan: ongi egiten dut, indartsu ari naiz hemen, gehiago eman behar diot han...

Sarritan, baina, irakasleak ez dute horrelakoetarako denborarik hartzen. Baina bilatu egin behar da, nola edo hala; profesional gisa ari direlako horretan. Demagun hilabete batean hamar hitzaldi eman behar ditugula; bada, entseguak gabe galdua gaude. Power Pointak momentu batean idatzitakoa gogoratzeko balio du, baina entzuten ari denak berrogei minutuko informazioa bereganatzeko gaitasuna baldin badauka—eta horixe da kalkulatu dagoena—apunteak irakurtzea bezalaxe izango litzateke.

Denbora atera egin behar da eta zailtasun handia duen irakasleak berrantzarazoa gairatu nahi badu, lan egin beharko du. Gainerakoan urtero ariko da bueltara kontu berdinarekin. “Bai baina teoriaraz esaten da”, pentsatuko du batekin baino gehiagok. Egin frogeta eta hitz egingo dugu. Azken batean, hitza menderatzen ez duenak asko irakurri behar du; arnasketak bere lekuan jarri behar ditu, gidoia behin eta berriz bere ahotsean entzun, inguruko lagunekin edo laneko talde txikiarekin entseguak egin... Beste sekreturik ez dago, egin eta egin. Azken batean norik bere buruarengan duen konfiantza indartzea da helburua, egunero tokatuko zaigulako hori egitea.

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



2010eko uztaila

ikastaroen laburpenak



Mirari BEREZIARTUA eta Nerea REDONDO

ALDAKETAPUNTUA COACHING ESKOLAKO KIDEAK

Euskal Herrian une honetan dugun egoerak aukera ezin hobe eskaintzen digu erronka berriei eusteko. Paradigma edo ikuspegi teoriko berriak aplikatuz, bide berrietan murgiltzeko aukera dugu. Emaitza berriak nahi baditugu, bidea aldatu beharra dugu, beste ondorio batera iristeko. Hori da, hezkuntzari dagokionez, guretzat erronka bihurtu dena. Gainera, Euskal Curriculum propioarekin konprometituta, barneko aldaketa sakona eskatzen digu horrek guztiak. Nola aldatu? Hor dago coachingaren ekarpena: aldaketa emate horretan laguntzen digu.

Coachinga, pertsona bati edo talde bati laguntzeko modu bat da. Bakoitzaren gaitasun guztiak maila gorenean erabiltzeko parada ematen du. Horrek esan nahi du, pertsona edo talde horiei, beraien oztopo eta muga personalak gainditzen laguntzen erakutsi diezaiekegula. Horrela, bakoitzak eman dezakeen onena nola eman deskubritzeko aukera emango diegu, ikuspegi berri bat erabiliz. Horren arabera coachingak, jardunean bezain besteko arreta harremanetan

ipintzea eskatzen du. Beraz, adimen emozionalari dagozkion gaitasunak hartzen ditu kontuan bereziki.

Oztopoetan zentratzeko joera albo batera utzi eta helburuen lorpenen eta irtenbideetan zentratzen da coachinga, ikuspegi oso batetik.

Coachingean “barruko joko” eta “kanpoko joko” bereizten dira. Timothy Gallwey garatutako kontzeptuak dira, eta bereziki kirolean hasi zen aplikatzen. Kanpoko jokoa irabazteko, barneko jokoa baliatzea proposatzen du berak. Egoki jarduteko, barneko jokoa funtsa mentalki prestatzea da. Hain zuzen ere, egiten ari garen horretan ipintzen dugun fokate mentala da barneko joko. Beraz, horrek kontuan hartzen ditu: jarrerak, ziurtasuna (norberarengan edo taldearengan), kontzentrazio eragin-korra, hanka-sartzeak eta presioa eramatzen jakitea...

Barneko eta kanpoko jokoa bateratzen direnean, jarduna bere kabuz ateratzen da. Oztopoen gainetik jarioa dago.

Bidea modu horretan egiteko, trebetasunak ikasi egiten dira, eta horretarako aukera ematen dugu guk. Coachilleren sistemarekin coaching praktikoa eta egituratua eskaintzen dugu, hori da gure bereizgarria. Gure

eskaintza egitura jakin baten bitartez trebatzen oinarritzen da. Egin nahi dugun aldaketarako jarduna eragin-korra izateko modu bat da.

William James psikologoak dioen moduan, “gure belaunaldiaren iraultza, gizakia, bere barneko jarrera mentalak aldatuz, kanpoko bizitzaren joerak aldatzea lor dezakeela jabetzea da”.

Euskal Herria eta ikaslea gure aldaketaren jomugatzat hartuz, merezi duen konpromisoa da, eta bai pertsonalki eta baita auzolanean ere modu desberdinean egiten ikasteko aukera dugu. Coachinga aldaketa errazteko bide berri bat da. Horretan lagun dezakegu, sostengua modu jakinean emanez.

Arkimedesez zioen moduan, “emadazue sostengu puntu bat eta mundua mugituko dut”. Hori da coachinga, sostengu puntua ematea. Zuri dagokizu, hala nahi baduzu, mundua mugitzeko aukerak zabaltzea. Hezkuntzako munduak badu aldatu beharra, eta Euskal Herrian une honetan, geure hezkuntza sistemarentz mugitzeko aukera dugu, ikuspegi berria erantsiz. Zuk sostengu puntua izan nahi al duzu? Guk trebatzen laguntzeko aukera eskaintzen dizugu.



Haurrentzako masajea



Ramon MAUDUIT

PSIKOLOGOA ETA PREBENTZIOAN ADITUA

Haur bakoitzaren garapen fisikoa eta emozionala, eta familian bertan eta familiaren eta eskolaren arteko egokitzapen prozesuak ikusiko ditugu.

1. - Gizartean aldaketak izan dira eta gidoiak ere aldatu egin dira azken urteetan. Lehen, haurrek ezer sentitzen ez zutelako esaten zen, adimena kanpotik eraikitzen zela. Gaur egun, aldiz, ikusten dugu, bizitzak zentzua errazago topatzen duela, bizitza bera hasieratik zentzumenetara zabaldu bada. Hor topatuko ditugu integrazioaren pedago-

giaren eta adimen emozionalaren oinarriak.

2. - Beharrezkoa da gure haurrek errespetuan haztea. Gurasoek eta Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzako irakasleek konpromiso handia dute bide horretan.

3. - Lotura afektiboaren garrantzia ere aipatu behar dugu: oinarrizko erreferentzia izango den pertsona izango dugu alde batetik, eta horrek hezitzailearekin duen lotura ere ezinbestekoa izango da. Konfiantzaren gakoak aztertuko ditugu eta gizakiarentzat 0 eta 6 edo 7 urte arteko garaia duen garrantzia ikusiko dugu.

4. - Egoteko eta ulertzeko erak, egoteko eta arreta jartzeko erarekin zerikusia du. Komunikazioaren modulatzailak erabiltzen ikasiko dugu: nola gerturatzaren garen, nola ukitzen dugun gure burua, nola hitz egiten diegun eta nola errazten dugun bat-bateko mugimendu eta adierazpen askatasuna.

5. - Familiaren eta eskolaren arteko komunikazioaren garrantzia aztertuko dugu, eta Usurbilgo esperientzia ikusiko dugu.

6. - Eskolak leku arrotza izateari utziko dio, eta gurasoek eta irakasleek

espazioa hartzen dute ikasgelan.

7. - Familia girotik gizarterako integrazioak mailakatua izan behar du.

8. - Konplizitatea: gurasoek lasaitasuna, konfiantza eta segurtasuna dute irakasleengan. Gurasoen artean eta irakasleen artean ere, komunikazioa hobetu egiten da.

9. - Giza sistemen ekologia. Sare sozialek eta komunikazioak garrantzi handia dute oraina eta etorkizuna eta estres egoerak aldatzeko, eta norbana-koen baliabideak eta baliabide komunak optimizatzeko, bai gure barnean, bai etxean, eskolan, herria edo hirian.

10. - Irakasleak pertsonalki eta profesionalki hobeto sentituko dira. Pedagogia zentzuz aplikatuko dute, hau da, haurra ezagutu egingo dute eta haurrek (0-3 urte bitartean) beren hazkuntza prozesuan dituzten beharrak eza-gutuko dituzte, eta zertan lagundu behar dieten jakingo dute.

1. eguna: UKITU

2. eguna: SENTITU

3. eguna: KOKATU

UKITU+SENTITU=KOKATU



Orkestra musikaterapeutikoak



Aitor ZENARRUZABEITIA

MUSIKA IRAKASLEA, LOGOPEDA, MUSIKATERAPEUTA, PSIKOMOTRIZISTA ETA PSIKOPEDAGOGOA.

**“Goizean jaiki, buruan abesti-
ren bat sartu, eta buruan bueltaka
dugula edo abestuz ematen dugu
eguna. Edo, bileraren batean gau-
dela, boligrafoarekin mahaia jo-
tzen aritzen gara etengabe. Askot-
an egiten ditugu horrelakoak, ba-
tzuetan konturatzen ez garen
arren. Bada, musikaterapia da
hori. Gure emozioak, haserreak,
pozak, ezinegonak... kanporatze-
ko erabiltzen dugun bitartekoa.
Eta, sarritan, jabetzen ez garen
arren, terapia gisa erabiltzen
dugu”.**

Aitor Zenarruzabeitia musika irak-
kale eta ikasketaburuaren hitzak dira
horiek. Zenarruzabeitia Logroñoko
Caballero de la Rosa ikastetxe publiko-
an. Baina horrez gain, logopeda, musi-
katerapeuta, psikomotrizista eta psiko-
pedagogo da. Musika gelara erama-
ten du musikaterapia, curriculumak es-
katzen dituenak alde batera utzi gabe,
baina ikaslibururik erabili gabe, hori
kontraesan ikaragarria dela uste baitu.

Musika pertsona guztiok egiten du-
gu; urduri baldin bagaude eta boligra-
foarekin mahai gainean kolpeka ari ba-
gara, hori musika da, perkusioa da. Ba-
koitzak gure soinu-izaera dugu. Eta
musika gelan, edozeinek egiten duen

soinuaren bidez azaleratzen da. Pertso-
nak sakonago ezagut ditzakegu sor-
tzen dituzten soinuen arabera, baina,
jakina, haien soinu-diskurtoa aztertu
behar dugu horretarako: erritmoa, me-
lodia, harmonia... Inprobisazioa, bat-
batekotasuna, oso garrantzitsua da ho-
ri lortzeko. Pertsonari bere musika egi-
ten utzi behar diozu. Bakoitzaren musi-
ka berezia da, eta, azaleratzen den mu-
sika horren arabera, pertsona horrekin
elkarrizketa has dezakegu, eta, musika
hori aldatuz, pertsona aldatuko dugu.

Horixe egiten du musikaterapiak
–beste edozein terapiak bezalaxe–.
Ahozko terapietan elkarrizketaren bi-
dez egiten duzu terapia, hobeto senti-
tzen zara. Musikaren kasuan, konsult-
tan jotzen hasten zara, eta terapeutak
musikaren bitartez laguntzen ditu zu-
gan egin beharreko aldaketak.

Erronka musika aldatuz soinu ber-
rietara joatea da, aldatzea (eta horretar-
ako beste era batera jotzen duen eta
probokatzen zaituen beste norbait be-
har duzu); eta soinu berri horiek erabil-
tzeko gai denean eta soinuak aldatzen
dituenean, beste era batera sentitzen
da.

Eta, horretarako, ez da solfeorik ja-
kin behar. Nahiz eta musikalki alfabet-
tuak ez izan, musika denok egin deza-
kegu, musikaltasuna denok dugu; gu-

regan dago. Eta badira gure izaera adie-
razten duten ezaugarriak. Barruko egi-
tura psikikoa nolakoa den agertzen da
musikaren bidez. Eta musikaterapiak
pertsonaren barnean dagoen musika
ateratzea du helburu.

Haurrek musikari esker, beldurrak
eta konplexuak alde batera uzten dituz-
te. Pertsonak badaki musika tresna ba-
tekin aukera asko dituela, eta giro lasaia
ikusten da, haurrak lasai daude eta ira-
kaskaleak ez du garrasika aritu beharrik
izaten. Gela haiena da, eta haiek sor-
tzen dituzte lanak. Nik garrantzi handia
ematen diot pentsaera musikalaria. Beti
galdetzen diet ikasleei: zertara zatozte
hona? Aginduak betetzera ala gauzak
proposatzera? Eta ikuspegia aldatu egi-
ten dute, proposamenak egiten dituzte,
eta probak egiten ditugu. Materiala ere
oso ongi zaintzen dute.

Azkenean musika maitatzen ikas-
ten dute. Musika tresna batek une onak
sentitzen eta barrena husten lagundu
badizu, ez da maraka huts bat, lagundu
dizun zerbait da; balio afektiboa har-
tzen du, eta zaindu egin behar duzu.
Gauzak beraienak direla sentitzen du-
te, adi daude, eta, gauza bat egiten ari
zarenean, berehala dituzu lau lagun la-
guntzeko prest, zuk ezer eskatu gabe.
Giro hori oso polita da. Ez dira ikaskaleak,
ia-ia adiskideak dira.



ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

UEUren eskaintza 10/11 Ikasturterako

EAEn GARATU plangintza

Zkia	Ikastaroa	Orduak	Non
923	Portaera arazoak kudeatzeko tresnak	15	Eibar
781	GPSa baliabide didaktikoa	30	on-line
323	Hizkuntza, kulturak eta lurraldeak	20	Bilbo
304	Basoaren sekretuak ikertuz	10	Donostia
216	Euskal Herriko inguru fisikoko ikasketarako baliabide didaktikoak	30	Eibar
226	GIS libreen erabilera irakaskuntzan	30	Eibar

Informazio gehiago:

Iratxe Irazola
943 82 14 26

k.akademikoa@ueu.org

www.ueu.org



APATXIN formazio plangintza

Haurreskolen Patzuergoko hezitzaileentzat APATXIN etengabeko prestakuntza plangintza kudeatzen dugu.

Informazio gehiago:

Ione Narbaiza - 943 82 14 26 - prestakuntza@ueu.org

NAFARROAn eta IPAR EUSKAL HERRIAN

Nafarroan, Euskara Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa (EIBZ) eta Irakasleen Laguntza Zentrorako (ILZ) formazio planak antolatzen ditugu. Bestalde, Ipar Euskal Herrian, SEASKA, Direction Diocésaine de l'Enseignement Catholique eta hainbat elkarteRekin elkarlanean dihardugu ikastaroak antolatzen.

Informazio gehiago:

Nafarroa: Edurne Koch - 948 36 25 63 - nafarroa@ueu.org

Ipar Euskal Herria: Joseba Manterola - 05 59 25 60 56 - iparralde@ueu.org

Adimen emozionala: irakasleen gizakitasuna



Ibon DE LA CRUZ

PSIKOLOGOA

Aspaldiko ezagunak dira Hik Hasi eta adimen emozionala. Pixkanaka ari gara gaia gero eta gehiago ezagutzen eta oraingotan urrats berri bat emango dugu. Aurten beste aldebatetik helduko diogu gaiari Udako Topaketetako ikastaroan. Gure buruari be-

giratuko diogu, hots, irakaslearen gizatasunari.

Irakasleok hezitzaileak gara, noski! Baina hori gure bizitzaren zati bat baino ez da. Gurea hezitzaile lana izan arren, gizakiak gara, eta askotan ahaztu egiten dugu hori.

Lehendabizi, gustura bizi behar dugu, eta egia esateko, hori ez da uste dugun bezain zaila. Hori lortu eta gero, geure bizitzako arlo guztiak automatikoki hobetuko dira.

Gizakiok, ongi bizitzeko, hainbat behar asetu behar ditugu. Horregatik, ez dugu ikastaroa gure lanari soilik mugatuko. Bizitzako hainbat alorrei, osotsunaria begiratuko diogu.

Egin behar dugun lehendabiziko gauza gure bizitzari so egitea da. Besteekin lan egin nahi badugu, lehenengo guk egin behar dugu bidea, zer sentitzen den jakiteko. Gure emozioak nola koak diren ikusi behar dugu bizipenen bitartez. Horrela ikusiko baitugu nola koak diren gure baldintzak. Lan hori

egiteko ausardia izan beharko dugu, eta egia bilatu.

Bigarrena, aurretik deskubritutako guztia bideratzeko hainbat teknika eta trikimailu eskuratzea da. Praktika hain zuzen. Prozesu emozionalak ezagutzen baditugu, eta arazoentzat erantzun baditugu, zer egin errealitateari erantzun eraginkorrek emateko?

Emozioen legeak ez dira mundu honetako lege bakarrak, eta egin nahi dugun edozein aldaketak errealitatean oinarrituta egon behar du. Ikastaro honen helburu nagusietako bat, beraz, tresna berriak eta praktikoak eskuratzea izango da.

Eta hirugarren eta azken urratsa... gozatzea!

Gure lan egiteko modua umoretsua eta dibertigarria izango da, beti bezala. Jakingura, norberaren esperientzia, pentsatzen dena esateko adorea eta ondo pasatzeko gogoia baino ez ditugu beharko.

Ongi pasatzera etorriko gara, ezta?



Jolastu eta pentsatu Haur Hezkuntzan



Miren CAMISON

FILOSOFIA, HAUR HEZKUNTZA ETA
HAUR FILOSOFIAKO IRAKASLEA

Bi planotan mugitzen da Haur Filosofia: jolastu eta pentsatu. Elkarrizketaren bidez elkar ulertzea eta ezagutzea da helburua, elkarrekin pentsatzera jolastea. Eta, elkarrekin pentsatzeko hiru baliabide nagusi proposatzen dira: jolasak, artea eta ipuinak. Euskal Herrian, Haur Filosofia ardatz izango duen elkarrekin sortzeko lehen pausoak ematen ari da Miren Camison. Bitartean, Noria Proiektua izeneko curriculumaren gaineko formazioa eskaintzen ari da.

Camisonen hitzetan, haurrek lehen egunetik borobil batean eserita ikasi behar dute, elkarrekin hitz eginez, elkar ezagutzuz eta gaiak elkarrekin ikerituz. Haurrek jolasa berezkoa dute eta ideia nagusia, elkarrekin pentsatzera jolastea da. Elkarrekin pentsatzeko hiru baliabide proposatzen dira: jolasak, artea (pintura eta musika, batez ere) eta ipuinak. Haurrek erraz uler ditzakete ipuinak, eta proposatzen diren ipuinak, filosofikoak dira, bizitzako gauzak erakusten dizkigutenak. Ipuin klasikoek, adibidez, bizitzaren elementu asko dituzte eta hainbat kulturatako ipuinak lantzea da helburua; munduan zehar bidaia bat eginez, baliabide horiekin jolastu eta elkarrekin bizi izan ditugun esperientziei buruz hitz egitea.

Filosofiaren praktika planteatzen da, ez filosofo txiki batzuk sortzea. Jen-

de irekia izatea, zentzuduna, pentsamendu sakonekoa, kritikoa, manipulatzeko erraza ez dena... XXI. mendeko konplexutasunean irtenbideak topatzeko sormena izatea, baina horiek lantzeko aukera eman behar die eskolak haurrei.

Elkarrizketa horrek haurren artekoa izan behar luke. Irakasleak gidari lana egiten du hasieran, eta ikasleen arteko elkarrizketa errazten du. Jolasak, artea eta ipuinak planteatzen dira eta bizipen horren ondoren elkarrizketa egiten da: zer ikusi dugun, zer sentitu dugun... Irakaslearen baliabideak galderak dira, ez du inoiz iritzirik emango, eta besteen iritzia errespetatu behar ditu. Irakaslea erdigunea izaten hasten da, baina helburua geroz eta atzerago geratzea da, protagonismoa galtzen joatea eta elkarrizketa ikasleen artekoa izatea. Ideala, Haur Hezkuntzan hasi ondoren beste etapetara zabaltzea izango litzateke.

1992tik konstruktibismoaren jarraitzea egiten dugula suposatzen da, baina hori teoria hutsa besterik ez da, XIX. mendeko eskola jarraitzen baitugu.

Hori da lehenengo arazoa. Eskola ezagutzaren transmisioan oinarritzen da: irakaslea da dakiena, eta ikasleek besteak esandakoa ikasi behar dute. Gelak, ikerketa komunitate bihurtu behar ditugu. Haurrek izan behar dute protagonista, eta irakasleak bigarren planoan geratu behar du, prozesuak errazten. Irakasleak galderak egiteko behar du, eta galdera horiek ikasgelan ezagutzei bidea emateko erabili behar ditu. Galdera irekiak, sakonak, eztabaida eta motibazioa pizten dituztenak... izan behar dute.

Haur Hezkuntzako haurren kasuan, hainbat ekintza jostagarri planteatzen dira, haur txikiek ezin baitute hainbeste denbora eman hitz egiten eta geldirik, ekintza eta mugimenduaren beharra baitute errealitatea ulertzeko eta pentsatzeko. Hiru urtez azpiko haurrekin, jolasaren aurrean, irakasleak behatzaile papera hartuko luke, pentsamenduaren mugimendua haurrek egiten dituzten ekintzetan antzemanez. Hiru-sei urte bitartean mugimenduak eta gorputzak dute garrantzi gehien eta ondoren pentsamendua.



Buru-mapak (Mind Mapping)



Eleder AURTENETXE

SORMEN ARLOKO TREBATZAILE.

Gure buruan ditugun ideiak antolatzeke tresnak dira buru-mapak. Eta, beraz, ideiekin lan egin behar duen edonorentzat egokiak dira, baita irakaskuntzan ere. Egitura sinplea dute: hitzak eta irudiak dira gakoak. Gure ideia nagusiak, hainbat hitz eta irudirekin adierazten ditugu, ondoren erraz gogoratzeko. Irudiek garrantzi handia dute gainera, ideiak erraz gogoratzeko ahalbidetzen dutelako. Eleder Aurtenetxe txiripaz hasi zen buru mapekin lanean, eta "The mind Map Book" liburua aholkatu ziotenetik, autodidakta izan da. Gaur egun, sormen arloko trebatzaile eta aholkulari gisa egiten du lan.

Aurtenetxek azaldu digunez, gai jakin bati buruzko buru-mapa sortzeko, lehenik eta behin gai hori adieraziko duen irudiren bat pentsatu behar da, eta erdigunean hori marraztu behar da. Koloreak erabiltzea komeni da, era horretan, garunak informazioa hobeto gordetzen duelako. Erdiko ideia nagusia dugunean, inguruan ideia zehatzagoak ipiniko ditugu, adarrak aterata. Ez da komeni erdigune horretatik bost edo zazpi adar baino gehiago ateratzea, izan ere, garunak zazpi kontzeptu baino gehiago

oroitzeko zailtasunak izaten ditu. Prozesu horretan, normalean lehenik zirriborro bat egiten da, ideia nagusiak eta gainerako ideiak identifikatzeko; eta bakoitza dagokion tokian jartzeko. Bost-hamar minututan zirriborroa egin dezakegu, eta, ondoren, lasaitasunez osatzen joan. Ideiak marrazkiekin osatzea ere, egokia da, informazioa errazago gogoratuko dugulako.

Buru-mapek ideien arteko asoziazioak egiten dituzte: geuzien bidez, ikur berezien bidez... ideiak lotzen dira. Adibidez, norbaiti 50 laguneko zerrenda osatzeko eskatuko bagenio, lagunak bost multzotan banatzeak asko erraztuko luke gero haien izenak gogoratzeko.

Espazioari dagokionez, buru-mapak orria etzanda dagoela egiten dira, espazioa hobeto erabiltzeko. Adarrak eta azpi adarrak modu irakurterrazean jarri behar dira, hau da, 45 graduko angelutik gorantz. Orriaren tamainak,

ez du garrantzirik, baina hutsuneek bai. Aurtenetxeren arabera, garunari hutsunea, espazio hutsa, ematen diotuzenean, hori betetzeko joera izaten du. Orria txikia bada, errazago beteko duzu, handia bada, gauza gehiago sortzeko joera izango duzu. Beraz, espazioa soberan izatea komeni da.

Buru-mapak oso interesgarriak izan daitezke irakaskuntzarako, bai irakasleek kontzeptuak azaltzeko eta baita ikasleek ikasteko tresna gisa erabiltzeko ere. Tresna menderatzea oso erraza dela dio Aurtenetxek: "Ikasiz gero, kontzeptua oso sinplea da; paradigma aldaketa besterik ez da. Aldaketa polita eta dibertigarria da, gainera. Buru-mapak egitean, prozesuan zehar gauzak asmatzen joan behar duzu, adi egon behar duzu ideiak zureganatzeko, kontzeptuak irudien bidez nola adierazi pentsatu behar duzu... Jolas etengabea da, norbere burua aberasteko modua".



Yoga saioak irakasleentzat



Marina PINTOS MARTIKORENA

PIANOJOLE, MUSIKA IRAKASLE ETA YOGA IRAKASLE.

Yoga, orain dela milaka urte Indian sortutako zientzia-filosofia da. Bere barnean, zientzia, filosofia, psikologia, natur medikuntza eta espiritueltasuna biltzen dira, besteak beste. Yoga belaunaldiz belaunaldi praktikatzen da sistematikoki, norberaren oreka, osasun fisiko eta psiko-emozionala hobetzeko helburuarekin.

Gaur egun, irakasle edo hezitzaile izatea ez da lan erraza. Saioak antolatu, azterketak prestatu eta zuzendu, bilerak, ebaluazioak, gurasoekin elkarrizketak, ikasleen kontzentrazio eza, motibazio falta, aztoratutako emozioak, jarrera desegokia... Horien guztien ondorioek nahi baino eragin handiagoa dute hezitzaileengan: antsietatea, estresa, gaitz fisikoak, urduritasuna, lo egiteko arazoak, kontzentrazio falta, tristura, depresioa...

Yogako teknikek eragin horiek arindu eta aurrikustez gain, gorputza indarberitu eta lasaitzen dute, arnasteko gaitasuna hobetu, odol zirkulazioa aktibatzen, kontzentrazioa erraztu, errendimendu fisikoa areagotu, ingurukoekin ditugun harremanak hobetu... Azken batean, osasun orekatua lortzen laguntzen dute.

Norberaren osasun fisiko eta psikologikoa hobetu nahi duen edozeini dago zuzendua ikastaroa: irakasle, hezitzaile, begirale edo guraso izan. Ikastaroa teoriko-praktikoa izango da, batez ere praktikoa. Hori dela eta, Mmanta

txiki bat ekartzea eta arropa eroso eta galtzerdiekin etortzea komeni da.

Helburuak

Lehenik eta behin jarrera fisikoen bitartez gure gorputza sentitu, lasaitu, indartu eta energia modu harmonikotan mugitu saiatuko gara. Era berean, jarrera desegokiaren ondorioz agertzen diren arazo fisikoak aurreikusi eta landuko ditugu: herniak, lordosiak, zifosiak...

Bestalde arnasketak, nerbio-sistema eta emozioetan daukan eragin zuzenaz jardun eta teknika horiek behar diren momentuetan erabiltzen ikasiko dugu, horixe da asmoa behintzat!

Guretzako teknikak ez ezik, ikasleekin landu ahal izateko modukoak ere ikasiko ditugu: adimena lasaitu eta kontzentratzeko teknikak, hain zuzen. Halaber, bisualizazioen bitartez norberaren eta ikasleen ikasteko gaitasunak haunditzen ikasiko dugu.

Azkenik, erlaxazio sakonaren bitartez, fisikoki nahiz psikologikoki lasaitzen eta eraberritzen ikasiko dugu.



Bideoa: editatzen ikasteko, Pinnacle Studio programaren bidez



Pelajo EIZAGIRRE DE GARATE

PADEKO (HEZIKETARAKO IKUS-ENTZUNEZKO DIGITALEN PRODUKZIOAK) ERREALIZADOREA ETA GERENTEA.
IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA TELEBISTA SAIOAK EGITEN
ESPERIENTZIADUNA

Beste osagaiekin batera, bideo digitala material didaktiko moduan erabil daiteke. Horretarako, ordea, teknologia berrienak eta erabilpenak ezagutu behar dira, eta hori da ikastaroan landuko duguna. Bideo digitalaren edizioa eta DVDa nola egiten diren ikusiko dugu.

Horretarako, edizio digitala egiteko behar diren bitartekoak erabiltzen ikasiko dugu; bereziki Studio programa, eta horren osagarriak. Gainera, edizioa errazagoa izan dadin, grabazio zuzena nola egin daitekeen ikusiko dugu. Planoaren morfologia aztertuko dugu, hau da, erreportaje edo dokumental batean erabiltzen diren planoak, plano orokorretik hasi eta zehaztasun planora arte. Grabazioa nola antolatu edo planifikatu ikusiko dugu, hori oso garrantzitsua baita edozein ikus-entzunezkoetan.

Studioren bitartezko *Edizio Digital Ez Linealak*, nahasketa mahai tradizionala, ediziorako sistema digital baten bidez konektatutako bi bideoekin ordezkatzea ahalbidetzen du. Aldi berean, post-produkzio ona egiteko behar den guztia eskaintzen du: trantsizioak, filtroak eta abar.

Edizio Digital Ez Linealak, hots, editatzeak, edo Studiorekin lan egiteak, zera dakar: lehenik eta behin, bideoak, argazkiak, audioak, animazioak eta abar lortzea. Bigarren urratsean, elementu horiei guztiei forma emango zaie editaiaren bitartez. Kontuan hartu behar dugu zenbait elementuri trataera berezia eman beharko zaiela: formatu aldaketa, filtroak, ukituak... Azkenik, behin elementu guztiak nahastutakotan, esportatu egingo ditugu, edo beste modu batera esanda, nahi dugun sistemara aterako ditugu: DVD zintara edo *avi*artxibora, gero aurkezpen multimedia batean sartzeko.

Azken emaitza, edizioan jartzen den interesaren eta ahaleginaren araberakoa izango da. Studio programa zabala da, beste "plug-in" batzuetara irekia dago. Modu horretan, "plug-in" egokia aurkituz gero, bertsio estandarrean irudikaezinak diren gauzak egin daitezke.

Studion, lehen zatia da gogorrena; hots, lanerako irizpide teknikoak ezartzea. Baina, hori guztia jakin beharra dago. Gainerakoa, nahasi samarra izan litekeen arren, dibertigarria, ulerterraza eta praktikoa da: trantsizioak egitea, planoak kentzea, filtroak ezartzea, espazioak animatzea...

Edukiak

Ikastaroan landuko diren edukiak hauek izango dira:

- Planoaren morfologia: plano orokorra, plano amerikanoa, plano erdia...
- Grabazioaren antolaketa
- Nola grabatu

- Proiektuak sortzea:

- * Proiektuaren antolaketa
- * Proiektu berria ireki
- * Proiektu baten osagaiak
- * Proiektuaren egitura
- * Proiektua gorde
- * Zer dira klipak, sekuentziak,

planoak...

- Bideoarekin irudiak hartzea:

- * Bideoaren atzemate txartelak
- * Hardware eta softwarearen bidezko ulertzea
- * Atzemate iturriak zehaztea
- * Atzemandako bideoa gordetzea

- Bideo kanalak:

- * Bideoaren kanaletan stream sartzea
- * Irudi finkoak sartzea

- Bideoaren editaia eta muntaia:

- * Editatzeko erremintaren erabilpena
- * Mozketa
- * Lekuz aldatzea
- * Denbora doitzea
- * Desegitea
- * Inserto delakoaren bidez editatzea

- Filtroen erabilpena

- Gardenkien erabilpena

- Soinu kanalak

- Izenburuak

- Proiektuak esportatzea

- Bideo formatuak:

- * Formatu motak
- * Bideo euskarriak



Anbotoko Damaren mundua



Ixabel MILLET

KONTALARIA ETA IDAZLEA

Parisen jaio eta 23 urterekin Euskal Herrira etorri nintzen. Honat etorritakoan, euskara ikasten hasi... eta oraindik amai-gabeko jarduera horretan nabil, euskaldun berri guztiak bezala.

Euskal Herrira etorri eta frantsesa erakusten aritu nintzen 18 urtez, irakas-kuntza sugestopedikoa erabiliz eta AEKko irakasleen artean hedatuz. Metodo horretan, besteak beste, poesia, kantuak eta ipuinak erabiltzen dira. Eta

ate horretatik amildu ziren ipuinak nire bizitzara.

Zaku bete ipuin, gurasoentzat, irakasleentzat, haurrentzat... Eskua sartu, eta edozein ateratzea aski ote da?

Ez, hobe da aukeratzea, izan ere, ipuin asko daude, mota guztietakoak: luzeak eta motzak, barregarriak eta bel-dugarriak, txikientzat eta helduentzat... Beraz, entzulea, unea eta giroa kontuan hartuta izaten da kontaketa. Hala ere, egokia izaten da gogoak esaten duenari ere jarraitzea, gogoak erakusten duen bideari kasu egitea, behintzat. Kontatzeko orduan garrantzitsua baita istorioa gustukua izatea.

Ipuin egile eta ipuin kontalaria naiz. Eta askok diote hori ez dela gauza serioa. Guztiz ados nago haiekin guztiekin:

Ez da batere serioa! Ipuinak jolasteko dira. Eta jolasa ez da serioa, gozame-na baizik. Gozatu egiten dugu ipuinak aditzen eta kontatzen; gozatzea garrantzitsua da oso. Gozatzu egiten duguna betiko biribilkatzen da bihotz ondoan, eta transmititzeko gogoia pizten digu. Mundu ezagun eta ezezagunen leihoak irekitzen dizkigute ipuinek, eta gu, irribarretsu eta konfiaturik, leiho barrura

amiltzen gara, eramaten gaituen lekurara, ikusi, entzun, ezagutu eta gozatzeko irrikaz.

Aurten Mariren mundura, hots, Anbotoko Damaren mundura amiltzeko gonbita luzatuko digu Udako Topaketetan:

Askotan, ipuinak kontatzen ditugunean, euskal mitologiako pertsonaiak eta numenak aipatzen ditugu... Bengan nor den/diren eta haien arteko harremanak zeintzuk diren ongi jakin gabe...

Ikastaro honen lehenengo asmoa, Mariren mundua ezagutzeko bidean urrats bat ematea da, ondoren, haurrei transmititu ahal izateko. Batetik, euskal mitologiaren antolamendua (Mari, Amalur...), pertsonaiak (Mari, Basajaun...) eta numenak (Gauargi, Lamiak...) ezagutarazi nahi ditu ikastaro honek. Bestetik, eta material gisa, euskal ipuinak begiratu ditugu, eta kontatzen ere saiaturiko gara, ahozko komunikazioa apur bat jorratuz.

Ikastaroan, bere lan-jarduera baitan euskal mitologia aipatzen duten irakasleek, hezitzaileek, begiraleek... har dezakete parte, baina, baita euskal mitologia maite duen orok ere.





Gotzon BARANDIARAN

IDAZLEA

1978an Itoiz taldeak bere lehen diska aurkeztu zuen, Jimu Iturralde, Jon Juaristi, Ruper Ordorika, Bernardo Atxaga, Manu Erzilla eta Joseba Sarrionandiak Pott literatur aldizkaria sortu zuten Bilbon, Koldo Izagirrek *Guardasola abantzia* argitaratu zuen, Euskal Herrian Euskaraz elkarteak sortu zen, Bizkaiko ikastolen aldeko lehen Ibilaldia antolatu zuten, Euskaltzaindiak "Bai Euskarari" kanpaina erraldoia antolatu zuen euskararen aldeko kontzientzia piztu eta dirua biltzeko, Hego Euskal Herriak ezezkoa eman zion Espainiako Konstituzioari, Poliziak German Rodriguez hil zuen San Ferminetako bigarren entzierroan, BVEk Jose Mi-

Atzera begira

gel Beñaran Argala ETako buruzagia hil zuen Angelun, bere autoan lehergai-lua jarrita eta nik Bego Arteagaren eskuari gogor oratu eta atzerantz egiten nuen indar Eguzkibegi ikastolako atarian. Gerora atek zarratzeko baino zabalatzeko gurago ditugula konturatu gara baina orduan erdi erdian kristalezko leiho bana zuten ate zuri haiek zehartzeko zer suposa zezakeen jakiteke, malkotan lehertu nintzen. Amaren esku leun, epel, ezaguna askatu eta andereñoaren esku arrotz, latz, hotzari helteza ordura arte egindako sakrifizio handiena izan zen. Neure burua dakusat, atzera begira, kokotean begiak banitu legez, atearen kristalezko leihotik lanbrotutako begiekin agurtzen ninduen amari begira. Nire bizitzako egunik zorionsuenetarikoa etorri ziren biharamunetik bertatik. Kurrikulumak agindutakoa ez eze, bizitzeko ezinbestekotzat ditugunei buruzko lehen eza-gupenak koadrodun amantal haien babesean jaso genituen. Euskal Herriarekiko zein euskararekiko begirunea erakutsi ziguten andereño eta maisuei eskerari naiz berbok idazten. Euskarazko kulturaren oinarritzko irakaspen haiengatik bizi nau euskarazko kulturak. Ez

dago *bit-paraderik* Imanol Urbietaren, Mikel Laboaren zein Hertzainaken kantak ahanztaraziko dizkigunik. Maitasuna letraz letra ikasi genuen, urterobat. Bi izenen artean xbat, berendiak zu zaitu laketa, gelako ederrena zeu zara idatziko genituen paper txataletan. Mundu guztiko eskoletan legez, mahai-azpitik bata besteari pasako genion mezua, maitearen eskuetara iritsi arte. Andereñoa arbelean idazten ari zela egingo genuen irri, maiteak maiteari begiratu ere egin gabe. Jolasordurako txirrina entzun eta jolastokira arineketa batean alde egingo genuen, maitea ordu erdiz ahaztu eta jolasean bizitzan beste egin beharrik ez bagenu legez zein baino zein aritzeko. Adiskidetasuna ere, orduetik daukat urregorritzat. Burua lar nagitzen ez bazait, hil artean gogoratuko ditudan lagunak ordukoak dira, autobusak harrapatu zuen Eneko, autobusean istripua izanda hil zen Gotzone, Frantziako eta Espainiako kartzeletan dituzten Oier eta Gorka. Zahartzaroan eskoletara itzuli gintezkeela bururatu zait, begirunea, adiskidetasuna eta maitasuna azkenekoz bizitzera.



Mintzaira, umeak bere bizipenekiko duen heinean sortzen da, eta jolasa da bere estimulorik eraginkorrena.

Imanol Urbietta

Pedagogia 2011 Habanan

Urtarrilaren 24tik 28ra



Azken Topaketetan ia 5.000 hezitzailek hartu zuten parte. 40 herrialde baino gehiagoko ordezkaritza izan zen, ehundaka ponentzia, ikastaroak, eskoletara bisitak, kultur ikuskizunak eta abar.

2011n, “Hezitzaileen batasunerako topaketak” izenburupean egingo direnak, ildo bera jarraituko dute. Bertan, 19 simposium, hainbat hitzaldi, ikastaro, eskoletarako bisitak...

Inork hara joateko interesa balu, jar dadila gurekin harremanetan.

www.pedagogia2011.rimed.cu helbidean informazio gehiago.

Argitaratu berria

hausnarketa sustatzeko

**Eskaintza berezia harpidedunentzat eta
kopuru handia eskatzen dutenentzat**



Itsusiak eta ederrak,
irekiak eta burugorrrak,
alferrak eta kementsuak,
zuzenak eta bihurriak,
gupidagabeak eta onberak,
argiak eta mozoloak,
egoistak eta emankorrrak,
egiazaleak eta gezurtiak,
maitagarriak eta higuigarriak
izan gara luzaroan.

Orain, aldatzen ari gara.



*idazlea zeu zara,
irakurtzen duzulako*

josebasarrionandia

130 ipuin eta 130 marrazkiz osatutako

liburua

+

lanketarako proposamen didaktikoa

hh